

**Zarauzko Irita eta Astiko hezeguneak
babesteko azterketa eta proposamena**

DIAGNOSTIKOA ETA BABESTEKO PROPOSAMENA

2018ko abendua



DIAGNOSTIKOA ETA BABESTEKO PROPOSAMENA

Aurkibidea


1. SARRERA.....	1
1.1. AURREKARIAK ETA HELBURUA	1
1.2. JARDUN ESPARRUA	1
2. DIAGNOSTIKOA	3
2.1. INGURUNE FISIKOA	3
2.1.1. Klima	3
2.1.2. Orografia.....	4
2.1.3. Geologia.....	5
2.1.4. Hidrologia	6
2.1.5. Edafologia	10
2.1.6. Landaretza	12
2.1.7. Onddoak	15
2.1.8. Fauna	16
2.1.9. Konektagarritasun ekologikoa	26
2.1.10. Paisaia	29
2.2. ANTOLAMENDU-TRESNAK ETA ARAUDIA	30
2.2.1. Interes Naturalistikoko Eremuak eta Eremu babestuak.....	30
2.2.2. Urola-kostako eremu funtzionaleko Lurraldearen Plan Partziala	35
2.2.3. EAEko Hezeguneen Lurralde Plan Sektoriala.....	36
2.2.4. EAEko Nekazaritza eta Basogintzako Lurralde Plan Sektoriala (177/2014 Dekretua)	38
2.2.5. EAEko Ibaien eta Erreken Ertzak Antolatzeko Lurralde Plan Sektoriala	39
2.2.6. EAEko Kostaldea Babesteko eta Antolatzeko Lurralde Plan Sektoriala (43/2007 Dekretua, martxoaren 13koa eta 32/2016 Dekretua, martxoaren 1ekoa).....	40
2.2.7. Zarauzko Hiri Antolamenduaren Plan Orokorra	40
2.2.8. Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoa 2015-2021..	44
3. ONDORIOAK	48
4. IRITA ETA ASTIERREKA HEZEGUNEAK BABESTEKO PROPOSAMENA.....	54
4.1. Zarauzko HAPOn aldaketa.....	54
4.2. Iñurritza Kontserbazio Bereziko Eremuaren (ES2120009) handitzea	57

1. SARRERA

1.1. AURREKARIAK ETA HELBURUA

Zarauzko udalerrian kokatutako Iritako eta Astiko hezeguneek aldamenean dagoen Iñurritzako Biotopo Babestuekin garrantzi handiko multzo ekologikoa osatzen dute. Hezegune hauetan egindako azterlan ezberdinek egun babestu gabe dauden bi eremu hauen balioa erakutsi dute, bai biodibertsitateari dagokionez, baita eskaintzen dituzten beste ekosistemen zerbitzuengatik ere, hala nola inguruko eremu hiritartuen uholde-arriskua murriztea.

Zarauzko Udalak, Iritako eta Astiko hezeguneen garrantziaz eta hauen balioak babestu eta sustatzeko egoki kudeatzeko beharraz jakitun izanik, azterlan berri bat egin nahi du, azken urteotan eginiko azterketa teknikoetan sortutako eta beste iturrietatik lortutako informazioa baliatuko duena eta, indarrean dagoen antolamendu-tresna eta araudia aintzat hartuz, eremu hauek karakterizatu eta bere babesa bermatzeko proposamena aurkeztuko duena. Hau da, hain zuzen ere, dokumentu honetan jasotzen den lanaren helburua.




1. irudia: Iritako eta Astiko hezeguneen kokapena Zarauzko udalerrian eta Iñurritzako Biotopo Babestuekiko.

1.2. JARDUN ESPARRUA

Azterlan honen esparrua Zarauzko Hiri Antolamendurako Plan Orokorrean (aurrerantzean ZHAPO) 17.2 Irita eta 25 Astierreka hirigintza eremuei dagokie. Zarauzko udalerriko ekialdean

kokatuta daude, A-8 autopistarako sarreraren alde banatara, eta guztira 29 ha inguruko azalera batzen dute.

Iritako eremua, 9,6 ha-ko azalera duena, jarduera ekonomikoetara zuzendutako hiri-lurzoru finkatu gabe bezala ezarrita dago ZHAPO-n. Bestalde, Astierrekako eremua, 19,1 ha-ko azalera duena, sektorizatu gabeko lurzoru hiritargarri bezala sailkatuta dago, etxebizitzaren sustapen publikorako lurzoruaren udal erreserba, nahiz eta ZHAPO-k berak esparrua interes naturalistikoko eremu bezala adierazten duen Hezeguneen Lurralde Plan Sektorialaren II. Taldean sartuta dagoelako.



2. irudia: Zarauzko Hiri Antolamenduaren Plan Orokorreko B-6 planoaren xehetasuna. 17.2 eremua: Irita; 25 eremua: Astierreka.

2. DIAGNOSTIKOA

2.1. INGURUNE FISIKOA

2.1.1. Klima

Zarauzko udalerrriak klima atlantikoa du, hau da, urtaro lehorrik gabeko klima epel hezea edo mesotermikoa: tenperaturei dagokionean moderatua eta prezipitazio aldetik oso euritsua. Gaueko eta eguneko, eta udako eta neguko tenperatura bitarteak ez dira oso handiak itsasoaren hurbiltasunaren eraginez, aire-masak, ozeanoko ur epelen gainetik igarotzean epelduta iristen baitira itsasertzera. Euri kopuru handia, ostera, Euskal Herriko isurialde atlantikoko orografiak eragiten du.


Euskalmet Euskal Meteorologia Agentziak estazioa dauka Zarauzko kanpinean kokatuta, 80m-ko altitudetan. C047 kodeaz identifikatzen den estazio honek 2017. urtean honako neurketak egin zituen hilabeteka¹:

1. taula: C047 estazio meteorologikoan (Zarautz) 2017an hilabetez hilabete jasotako balioak.

Parametroa	U	O	M	A	M	E	U	A	I	U	A	A
Pilatutako prezipitazioa (l/m ²)	93,9	62,6	105,9	51,9	64,3	64,8	39,9	105,1	102,5	63,6	198,9	233,5
Prezipitazio maximoa egun batean (l/m ²)	25,4	19,6	34,6	12,2	24,9	13,7	11,2	42,5	22,8	26,1	36,2	30,8
Prezipitazio egunak	10	14	14	7	14	18	15	14	15	12	16	23
Batezbesteko tenperatura (°C)	7,4	11,3	12,4	12,6	16,6	19,2	19,6	20,2	17,5	16,8	11,9	9,2
Tenperatura maximo absolutua (°C)	19,7	19,3	25,4	24	30,2	36,4	35,6	35,3	27,8	27,6	22,8	19,4
Tenperatura minimo absolutua (°C)	-2	3,8	4,3	4,7	8	12,4	12,5	12,8	10	6,8	3,2	0,4
Izozte-egunak	4	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
Eguneko batezbesteko hezetasuna (%)	75,1	72	72,8	72,9	76,5	82,6	83,3	80,6	80,3	80,6	73,4	77,8
Batezbesteko haize-abiadura (km/h)	16,6	15,8	14,7	13,5	11,3	11,4	11,1	11,1	12,2	12	16,5	17,2
Haize-abiadura maximoa (km/h)	89,6	118,4	89,6	74,2	71,6	72,4	60,5	78,5	77	79,2	87,8	141,5

Horietatik, pilatutako prezipitazioa eta batezbesteko tenperatura kontuan hartuta, Zarauzko 2017. urteari dagokion diagrama onbrotermikoa edo klimograma irudikatu daiteke:


¹ Euskalmet. 2017ko Meteorologia txostena. Parametro meteorologikoen taulak.



3. irudia: Zarauzko Euskalmeteko estazio meteorologikoko 2017ko datuekin osatutako klimograma.

2.1.2. Orografia

Jardun-esparruaren MDT edo lurreko eredu digitala² aztertuz, honakoa kalkulatu daiteke: Altitude tartea 1,5 - 26,37 m-koa da, puntu altuena ekialdeko muturrean kokatuta dagoelarik; eremua oro har laua da, % 34-tik beherako maldekin.



4. irudia: Irita eta Astierrekako malden banaketa.


² GeoEuskadi, Euskadiko Datu Espazialen Egitura.

2.1.3. Geologia

Jardun-esparruan hiru motatako material edo gai litologikoak bereizten dira²: estuario-pilaketak (azaleraren %87), tuparri, tupa karedunak eta kareharri hareatsuak (%12) eta soilik tuparri eta tupa karedunak (%1 baino gutxiago). Gai hauek iragazkortasun oso txikia daukate, beraz, eremuak akuiferoa kutsatzeko urrakortasun handiegirik ez daukala esan daiteke.

Geomorfologiaren aldetik, mareaz goragoko lohiez eta kolubialez gain, natura heterogeneoko betelan artifizialak ere agertzen dira². Guztira, eraikitze-baldintzak oso aurkakotzat hartzen dira, uholde-arriskua, istiltzea eta zimenduak jartzeko zama-gaitasun eta ezargune urriak direla eta.

Eremu osoa Zarauzko sakonunea izeneko gunearen barnean kokatzen da. Gune hau, izen bereko Keuperreko diapiroan oinarriturik eratu da klima hezeetan gertatu ohi den higaduraren ondorioz, sakonunea hondartza-duna-padura sisteman 30 m-ko Koaternarioko sedimentuz beteta dagoelarik. Gipuzkoako Foru Aldundiak Zarauzko Sakonunea interes geologikoko gunetzat jo zuen 1991ko lanean; hala ere, EAEko Geodibertsitatearen 2020 Estrategiako *Geologia Interesdun Lekuen Inbentarioan* ez da ez hau ezta jardun-esparruari dagokion bestelako kokapenik azaltzen³.




5. irudia: Irita eta Astierrekako ezaugarri geologikoak.

³ Ihobe. 2014. *Euskal Autonomia Erkidegoko Geodibertsitatearen Estrategia 2020*. Eusko Jaurlaritza.

2.1.4. Hidrologia

Jardun-esparruan aurki dezakegun ur-ibilgu nagusia Astierreka da, hego-ekialdetik ipar-mendebaldera zeharkatzen duena, Abendaño errekan (Iñurritza edo San Pelaio izenez ere ezaguna) isuri arte. Bigarren ibilgu honek esparruarekin mendebaldean egiten du muga.



6. irudia: Irita eta Astierrekako sare hidrografikoa eta bere zortasunak.

Aurkeztutako sare hidrografiko hau Iñurritza ur-masaren barnean dago, Oria Unitate Hidrologikoaren baitan. Ur-Agentziaren kontrol sarearen azken datuen arabera^{4,5} (2017 urteko kanpaina), Abendañoko ibai-tartearen uren kalitatea ‘moderatua’ da egoera biologikoari dagokionean eta ‘ona baino okerragoa’ egoera kimikoari dagokionean, ondorioz egoera ekologikoa ‘moderatua’ dela esan daiteke (2. taula).

⁴ Anbiotek & Cimera. 2018. *Red de seguimiento del estado biológico de los ríos de la CAPV*. Campaña 2017. Ur-Agentzia.


⁵ LTL & Ekolur. 2018. *Red de seguimiento del estado químico de los ríos de la CAPV*. Campaña 2017. Ur-Agentzia.

2. taula: Iñurritza-A ur-masaren kalitatearen ebaluaketa 2017ko datuen arabera.

Parametroa	Balorazioa
Egoera biologikoa	Moderatua
Makroornogabeak	Moderatua
Fitobentosa	Ona
Arrain fauna	Oso ona
Baldintza fisikokimiko orokorrak	Ona baino okerrago
Hidromorfologia	-
Egoera ekologikoa	Moderatua

Terranovak 2009an egindako Zarauzko hidrogeologiari buruzko lanean⁶ azaltzen denez, Iritako esparruan kokatzen den San Pelaio izeneko puntuan egindako zundaketen emaitzen arabera puntu horretan akuiferoak ur gezatako ezaugarriak dauzka (7. irudia), baina beste zundaketen emaitzek Zarauzko akuiferoak itsasoko uraren gatz-intrusioa pairatzen duela erakusten dute. Hau hala da, alde batetik, hirigintzaren ondorioz lurzoruen artifizializazioak akuiferoak gero eta euri-ur gutxiago jasotzea eragin baitu eta, bestetik, putzuek akuiferoko ur-geza zuzenean ustiatzen dutelako.

Lan honen egileek Koaternarioko akuifero hau babesteko beharra azpimarrazen dute, horretarako fluxu naturala ahalik eta gehien mantendu beharko litzatekeelarik. Irita eta Astierrekako eremuak hiritartzeak, ZHAPOk aurreikusten duen moduan, honen aurka egingo luke.




7. irudia: Iritako San Pelaio zundaketaren ezaugarriak. Iturria: Estudio Hidrogeológico de Zarautz (Gipuzkoa), Terranova, 2009.

Bestalde, jardun-esparruak uholde arrisku handia dauka: altitude handieneko lurrak, hau da, Astierrekako ekialdeko muturra eta hegoaldeko muga kokatuta dagoen lur-zatitxo bat kenduta, gainontzeko azalera osoa birgertatze-aldi ezberdineko uholde-arriskupean aurkitzen da (8. irudia). Zehazki, 10 urteko birgertatze-aldiko orbanak eta lehentasunezko fluxu-eremuak jardun-esparruaren % 50,4 hartzen ditu eta, aurrerago garatuko den bezala, indarren dagoen legediak eremu hauetan hirigintza-garapenak egiteko muga zorrotzak ezartzen ditu.

⁶ Terranova. 2009. *Estudio hidrogeológico de Zarautz (Gipuzkoa)*. Gipuzkoako Foru Aldundia.

Urtarrilaren 15ko 20/2016 Errege Dekretuaren bitartez onartua izan zen 2015-2021 zikloari dagokion Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Uholde Arriskua Kudeatzeko Planean, Uholde Arrisku Handiko Eremuak (UAHE) identifikatu eta karakterizatu ziren. Horietako bat, Zarauzko UHABE izenekoak hain zuzen, jardun-esparruko ibilguak hartzen ditu bere barnean (8. irudia).




8. irudia: Irita eta Astierrekako uholdegarritasuna.

UHABE honi dagokion fitxan⁷, eremu honetako uholdeen jatorria ibilgu nagusiaren hustutze-ahalmen urria eta buxadurak direla adierazten du (9. irudia). Zentzu honetan, Irita eta Astierrekako hezeguneek uraldiak indargetzeko funtzio garrantzitsua betetzen dute.


Aipatu Uholde Arriskua Kudeatzeko Planak, halaber, UHABEak sailkatu eta bakoitzarentzat babes-irtenbideak proposatzen zituen. Zarauzko UHABEren kasuan⁸, II. taldean sailkatua izan zen eta Irita eta Astierrekako eremuetan hainbat neurri proposatzen zituen, hala nola, oinezkoen pasabidea kentzea, galtzada-sestra igotzea, horma bat altxatzea edo lubeta bat sortzea, jardun-esparruko puntu ezberdinetan (10. irudia).

⁷ Sener & EKOLUR. 2016. Plan de Gestión del Riesgo de Inundación de la parte española de la Demarcación Hidrográfica del Cantábrico Oriental 2015-2021. Anejo I: caracterización de las ARPSIs. Ur-Agentzia.

⁸ Sener & EKOLUR. 2015. *Elaboración de los planes de gestión del riesgo de inundación en la CAPV. Nota técnica nº 106 análisis de soluciones de protección: ARPSI de Zarautz*. Ur-Agentzia.




9. irudia: Zarauzko UHABE. Iturria: Plan de Gestión del Riesgo de Inundación 2015-2021. Anejo I: caracterización de las ARPSIs. Ur-Agentzia, 2015.



10. irudia: Zarauzko UHABEn proposatutako irtenbideen kokapena. Iturria: Elaboración de los PGRI en la CAPV. Nota técnica nº 106. Análisis de soluciones de protección: ARPSI de Zarautz.

Urtarrilaren 8ko 1/2016 Errege Dekretuaren bitartez onartua izan zen 2015-2021 zikloari dagokion Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoak Babestutako eremuen Erregistroa jasotzen du. Honetan, hezeguneen kategorian Hezeguneen Inventario Nazionalean (INZH; 435/2004 Errege Dekretua) A1G3 kodeaz identifikatuta dagoen Zarauzko Iñurritzaren itsasadarra, jardun-esparruko zati bat barne, sartuta dago.



11. irudia: Hezeguneen Inventario Nazionalean eta ondorioz Plan Hidrologikoko Eremu Babestuen Erregistroan sartutako eremua, jardun-esparruarekiko.

2.1.5. Edafologia

Litologia, orografia eta klima bezalako eragileek lurzoru motak baldintzatzen dituzte eta hauek nekazal erabilerak.

Jardun-esparruko lurzoruak, betelanek estalitako gunek kontuan hartu gabe, bi motatakoak dira⁹ (12. irudia): kanbisola, buztin pilaketa prozesu hasiberria duen lurzoru gaztea, nekazal erabilera tarte zabala ahalbidetzen duena, eta gleysola, maila freatikoaren gertutasuna dela eta, eta drainatze urriaren ondorioz, ura era iraunkorrean daukan lurzoruak.


⁹ GeoEuskadi, Euskadiko Datu Espazialen Egitura.



12. irudia: Irita eta Astierrekako lurzoru motak edafologiaren ikuspuntutik.

Gipuzkoako Mota Agrologikoen Maparen arabera nekazaritza-ahalmen ezberdina duten 5 lurzoru mota bereiz daitezke jardun-esparruan (13. irudia):

- II: Nekazaritzarako eragozpen gutxi duten alubioi zabaleko lur sakonak
- IV: Malda txikiko mendi-bizkarretan eta %20 baino gutxiagoko malda duten lurrak, mendi-hegaletan lantzeko lursailen muga daudenak.
- V: Putzuak sortzen direla eta, nekazaritzarako zailtasun handikoak diren lur lauak.
- VII: %35 baino malda handiagoko lurrak, baso lanerako baino erabili ezin daitezkeenak.
- VIII: Nekazaritzarako balio ez duten lurrak: gunehiritartuak eta ingurua zaintzeko edo paisaietarako beste erabilpenik ez dutenak.



13. irudia: Irita eta Astierrekako lurzoru motak Gipuzkoako Mota Agrologikoen Maparen arabera.


2.1.6. Landaretza

Aranzadik 2010tik 2012ra bitartean txosten honen jardun-esparruari dagokion eremuan (gehi A-8 errepidearen hegoaldean geratzen den eremua) bi azterketa egin zituen bertako landaredia eta hegazti komunitatea deskribatzeko^{10,11}. Bi txostenen emaitzak batuz, honakoa ondorioztatu daiteke landaretzari dagokionean:

Ikerketa-eremuko azalerarik handiena potentzialki padurari dagokio baina mendeetan zehar gizakiak lurraldeaz egin duen erabileragatik egun 27 habitat ezberdin aurkitzen dira 2007ko bertsioko EUNIS sailkapenaren arabera. Horietatik 14 habitat natural eta seminaturalak dira eta 13 artifizialak; habitat natural eta seminaturaletatik 4 Habitat Zuzentarauaren I.go eranskinean agertzen dira.

¹⁰ Aldalur, A., Etchezarreta, J., Garmendia, J., Goikoetxea, J., Jauregi, J.I., Oreja, L., Sánchez, J.M. & Arizaga, J. 2010. *Avifauna migratoria y flora de interés en el carrizal de Sakeletxe-Asti (Zarautz, Gipuzkoa)*.

¹¹ Etchezarreta, J. & Oreja, L. 2012. *Astiko balio naturalen azterketa eta kudeaketa proposamena*.



14. irudia: 2007ko EUNIS sailkapenaren arabera identifikatutako habitaten kokapena. Iturria: Etxezarreta & Oreja, 2012.

3. taula: 2007ko EUNIS sailkapenaren arabera Irita-Asti eremuan identifikatutako habitatak. (* bidez Lehenatasuneko Habitatak adierazten dira). Iturria: Etxezarreta & Oreja, 2012.

EUNIS KODEA	EUNIS LEGENDA	HABITAT-ZUZENTARUA	AZALERA (HA)
HABITAT NATURAL ETA SEMINATURALAK			
A2.637	<i>Baccharis halimifolia</i> egiturak	-	2,43
A2.63C	<i>Phragmites australis</i> lezkadiak	-	2,25
C2.4	Estuarioko ur-lamina, landaredi baskularrik gabe	1130	0,36
C3.24	Karize handien edota <i>Iris pseudacorus</i> egiturak	-	0,17
E1.26	Albiztiak eta Mesobromion taldeko larreak	6210	0,19
E2.11	Larreak eta manipulatutako gabeko zelaiak	-	0,02
E2.13(X)	Albizti bilakatzen ari diren lugorriak	-	0,07
E2.13(Y)	Utzitako belardiak espezie erruderaekin	-	0,32
E2.21	Larratu gabeko segabelardi atlantiarrak	6510	3,40
F3.11(Y)	Lahardi kaltzikola (<i>Rubus ulmifolius</i>)	-	3,85
F9.2(X)	Erreka bazterreko eta lurzoru lohitsuak	-	2,85
FA.3	Heskaiak (bertako espezieekin)	-	0,48
G1.21(Z)	Ibaiertzeko haltzadi eurosiberiarra	91E0*	0,17
G1.D(X)	Frutarbolen landaketak	-	0,27
HABITAT ARTIFIZIALAK			
E2.6	Kirol-zelaiak	-	2,01
FA.1	Espezie exotikoz eginiko heskaiak	-	0,20
G1.C(X)	<i>Platanus</i> sp. landaketak	-	1,08
I1.2	Baratza eta mintegiak	-	9,80

EUNIS KODEA	EUNIS LEGENDA	HABITAT-ZUZENTARUA	AZALERA (HA)
I1.5	Goldatutako lur gorriak edo lugorriak	-	0,35
I2.1	Lorategi eta parke ornamental handiak	-	1,13
I2.2	Lorategi eta parke ornamental txikiak	-	0,57
J1	Herri eta hirietako eraikinak	-	0,28
J2	Dentsitate baxuko eraikinak	-	1,41
J4.1	Eremu asfaltatuei loturiko landaredia	-	0,91
J4.2	Errepide-sareak	-	3,13
J4.6	Bestelako habitat artifizialak	-	0,94
J6	Zabortegiak	-	0,45

Ikuskatutako flora espezieei dagokionean, guztira 17 aipatzen dituzte. Zerrenda hau Arkamurka Natur Elkartek 2013an aurkeztutako txosteneko¹² eta Gbif biodibertsitate-datuen atarian¹³ jardun-esparruari dagokion kokapena duten aipamenekin osatu da 90 espezieko zerrenda osatuz. Horietatik 2, letra lodiz agertzen direnak, espezie mehatxatuak (goi-indizean Erkidegoko Espezie Mehatxatuen Katalogoko kategoria) eta 12, aloktonoak, hauen artean 4 (gorriz) Estatuko Espezie Exotiko Inbaditzaileen Katalogoan:

4. taula: Irita eta Astierrekako eremuetan identifikatutako landare espezieak. Letra lodiz Erkidegoko Espezie Mehatxatuen Katalogoan, GA: galtzeko arriskuan, B: bakana. Gorriz: Estatuko Espezie Exotiko Inbaditzaileen Katalogoan.

Autoktonoak		Aloktonoak
- <i>Alnus glutinosa</i>	- <i>Lobelia urens</i>	- <i>Arundo donax</i>
- <i>Althaea officinalis</i>	- <i>Lobularia maritima</i>	- <i>Baccharis halimifolia</i>
- <i>Anacamptis pyramidalis</i>	- <i>Lychnis flos-cuculi</i>	- <i>Bidens aurea</i>
- <i>Angelica sylvestris</i>	- <i>Lysimachia vulgaris</i>	- <i>Bidens frondosa</i>
- <i>Anthemis arvensis</i>	- <i>Lythrum junceum</i>	- <i>Buddleja davidii</i>
- <i>Anthemis cotula</i>	- <i>Lythrum salicaria</i>	- <i>Cortaderia selloana</i>
- <i>Apium nodiflorum</i>	- <i>Malva cretica</i>	- <i>Ipomoea indica</i>
- <i>Atriplex prostrata</i>	- <i>Mathiola incana</i>	- <i>Lepidium virginicum</i>
- <i>Bidens tripartita</i>	- <i>Medicago marina</i>	- <i>Oenothera drummondii</i>
- <i>Bolboschoenus maritimus</i>	- <i>Melilotus officinale</i>	- <i>Oenothera glazioviana</i>
- <i>Calystegia sepium</i>	- <i>Oenanthe lachenalii</i>	- <i>Papaver somniferum</i>
- <i>Capsella bursa-pastoris</i>	- <i>Orchis mascula</i>	- <i>Solidago gigantea</i>
- <i>Capsella rubella</i>	- <i>Pastinaca sativa</i>	
- <i>Carex riparia</i>	- <i>Papaver dubium</i>	
- <i>Cirsium vulgare</i>	- <i>Papaver rhoeas</i>	
- <i>Convolvulus arvensis</i>	- <i>Pennisetum clandestinum</i>	
- <i>Equisetum arvense</i>	- <i>Petrorhagia nanteuilii</i>	
- <i>Equisetum palustre</i>	- <i>Phragmites australis</i>	
- <i>Equisetum ramosissimum</i>	- <i>Polygonum lapathifolium</i>	
- <i>Equisetum telmateia</i>	- <i>Raphanus raphanistrum</i>	
- <i>Euphorbia hirsuta</i>	- <i>Salicornia obscura</i> ^B	
	- <i>Salix atrocinerea</i>	

¹² Zarauzko Arkamurka Natur Elkartea. 2013. Zarauzko Ihidieta (Irita) hezegunea (ZHAPO: 17-2 OR Ihidieta = Zona 35 Artiko) Eremuaren naturalizazio proiektua Erriberetako parke periurbanoaren baitan.

¹³ <https://datos.gbif.es/> Kontsulta-data: 2018/10/04.

Autoktonoak		Aloktonoak
- <i>Euphorbia peplus</i>	- <i>Salix viminalis</i>	
- <i>Euphorbia pubescens</i>	- <i>Salsola kali</i>	
- <i>Filipendula ulmaria</i>	- <i>Samolus valerandi</i>	
- <i>Fumaria muralis</i>	- <i>Scirpus pungens</i>	
- <i>Galium elongatum</i>	- <i>Scutellaria galericulata</i>	
- <i>Galium palustre</i>	- <i>Serapias cordigera</i>	
- <i>Gnaphalium luteo-album</i>	- <i>Serapias parviflora</i>	
- <i>Helichrysum stoechas</i>	- <i>Sinapis arvensis</i>	
- <i>Hibiscus palustris</i> ^{GA}	- <i>Solanum dulcamara</i>	
- <i>Honkenya peploides</i>	- <i>Stachys palustris</i>	
- <i>Iris pseudacorus</i>	- <i>Thlaspi arvense</i>	
- <i>Juncus inflexus</i>	- <i>Thymus praecox</i>	
- <i>Juncus maritimus</i>	- <i>Typha angustifolia</i>	
- <i>Lagurus ovatus</i>	- <i>Typha latifolia</i>	
- <i>Latyrus nissolia</i>	- <i>Urtica dioica</i>	
- <i>Linum usitatissimum</i>	- <i>Verbascum virgatum</i>	
- <i>Listera ovata</i>	- <i>Xanthium spinosum</i>	

Gainera, 2010ean Aranzadik EAEko areatza eta estuarioetako flora baskularrari buruz egindako lanean¹⁴, Zarauzko paduretan aipatutako baina azkenaldian aurkitu ez diren beste espezie hauek jasotzen dira:

- *Matricaria maritima* subsp. *maritima*
- *Schoenoplectus pungens*
- *Sonchus maritimus* subsp. *maritimus*
- *Suaeda albescens*
- *Suaeda maritima*

Hauen galeraren arrazoi bezala paduren murrizketa (hirigintza, baratzak...) eta andeatzea (espezie exotiko inbaditzaileak...) adierazten dute.

2.1.7. Onddoak

2015ko mikologia lan batek Ihidieta edo Iritako lezkadira lotutako onddoak identifikatu zituen¹⁵: guztira 40 espezie (*Ascomycota* dibisioko 33 eta *Basidiomycota* dibisioko 7), horietatik 15 aipamen berriak EAerako (beheko taulan A goi-indizearekin), 6 Iberiar Penintsularako (B goi-indizearekin) eta 3 espezie berriak zientziarako (C goi-indizearekin). Zerrenda hau Gbif datu basean jardun-esparru osoari, ez lezkadiari bakarrik, dagokion kokapena duten aipamenekin osatu da 64 espezieko kopurura iritsiz.

¹⁴ Aranzadi, 2010. *Estudio del estado de conservación de la flora vascular y vegetación de los arenales y estuarios de Gipuzkoa*. Fundación Biodiversidad.


¹⁵ Olariaga, I., Terés, J.L. & Albizu, J.L. 2015. Hongos asociados a formaciones de *Phragmites australis* en las cuencas del Urola y del Oria (Gipuzkoa, País Vasco). *Zizak* 11, pp. 65-93.

5. taula: Irita eta Astierrekako eremuetan identifikatutako onddo espezieak. A) EAerako aipamen berriak, B) Iberiar Penintsularako aipamen berriak, C) Zientziarako espezie berriak.

Ascomycota	
- <i>Alternaria alternata</i>	- <i>Lophiostoma semiliberum</i> ^A
- <i>Anthostomella rubicola</i>	- <i>Lophodermium arundinaceum</i>
- <i>Anthostomella tomicoides</i> ^A	- <i>Mollisia hydrophila</i>
- <i>Apiospora montagnei</i>	- <i>Mollisia retincola</i>
- <i>Arthrinium arundinis</i> ^A	- <i>Murispora rubicunda</i> ^A
- <i>Arthrinium phaeospermum</i>	- <i>Orbilia graminis</i> ^C
- <i>Bisporella sulfurina</i>	- <i>Orbilia septispora</i> ^B
- <i>Brunnipila palearum</i> ^A	- <i>Patellaria atrata</i>
- <i>Calycellina alniella</i>	- <i>Periconia atra</i> ^A
- <i>Calycina claroflava</i>	- <i>Pezizella alniella</i>
- <i>Calycina scolochloae</i> ^A	- <i>Phomatospora berkeleyi</i> ^A
- <i>Dactylospora stygia</i>	- <i>Rosellinia franciscae</i> ^A
- <i>Didymosphaeria massarioides</i> ^B	- <i>Seynesia graminis</i> ^C
- <i>Gibberella cyanea</i> ^B	- <i>Stenocybe pullatula</i> ^A
- <i>Hendersonia culmiseda</i> ^A	- <i>Stictis radiata</i>
- <i>Hydropisphaera arenula</i> ^A	- <i>Stictis stellata</i>
- <i>Lachnum controversum</i> ^A	- <i>Torula herbarum</i>
- <i>Lasiobelonium lanceolatum</i> ^B	- <i>Trichobelonium kneifii</i>
- <i>Lentithecium arundinaceum</i> ^A	- <i>Unguiculariopsis phragmiticola</i> ^C
Basidiomycota	
- <i>Agaricus bisporus</i>	- <i>Lepiota brunneolilacea</i>
- <i>Agaricus subperonatus</i>	- <i>Lepiota subincarnata</i>
- <i>Amanita strobiliformis</i>	- <i>Leptocorticium utribasidiatum</i> ^B
- <i>Boletus spretus</i>	- <i>Limacella delicata</i>
- <i>Bulbillomyces farinosus</i>	- <i>Lycoperdon mammiforme</i>
- <i>Byssomerulius corium</i>	- <i>Mycena adscendens</i>
- <i>Coprinopsis strossmayeri</i>	- <i>Mycena cupressina</i>
- <i>Coprinus comatus</i>	- <i>Puccinia phragmitis</i>
- <i>Datronia mollis</i>	- <i>Russula heterophylla</i>
- <i>Farysia thuemenii</i>	- <i>Schizophyllum commune</i>
- <i>Hebeloma leucosarx</i>	- <i>Tremella spicifera</i> ^B
- <i>Hyphodontia sambuci</i>	- <i>Typhula gyrans</i>
- <i>Lachnella alboviolascens</i>	- <i>Volvariella bombycina</i>

2.1.8. Fauna

Animalien mugikortasuna dela eta, atal honi erantzuteko ez gara jardun-esparruan kokatutako aipamenetara mugatu: txosten tekniko eta artikuluko zientifikoak kontsultatzeaz gain, Ornitho.eus datu-basean Zarautzerako agertzen diren aipamen guztiak erabili dira (zetazeoak kenduta) eta Gbif.es datu-basean, jardun-esparruaren gutxi gora-beherako erdiko puntutik km 1eko radioan agertzen direnak erabili dira (15. irudia). Emaitzak taldeka azaldu eta aztertuko dira:



15. irudia: 2018ko urrian Gbif.es datu-basean kontsultatuko fauna-datuen kokapena.

Ornogabeak

Animalia talde honi buruzko datuak, ohi bezala, oso eskasak dira eta guztira 13 espeziaren aipamenak bildu dira: 10 tximeleta, kakalardo 1 (patatarena, hain zuzen) eta bi armiarma (6. taula). Harritzekoa da, hezeguneetan eta beste ingurune urtarretan ohikoak diren eta beren ikusgarritasunagatik naturzaleen atentzioa deitzen duten odonato edo sorginorratz eta burruntzien aipamenik ez edukitzea.

6. taula: Irita eta Astierrekako eremuen inguruan aipatutako ornogabe espezieak.

Ornogabe taldea		Espezieak
Insecta	Lepidoptera	- <i>Aglais io</i> - <i>Araschnia levana</i> - <i>Cacyreus marshalli</i> - <i>Colias alfacariensis</i> - <i>Gonepteryx cleopatra</i> - <i>Macroglossum stellatarum</i> - <i>Pararge aegeria</i> - <i>Pieris brassicae</i> - <i>Pieris rapae</i> - <i>Pyronia tithonus</i>
	Coleptera	- <i>Leptinotarsa decemlineata</i>
Arachnida		- <i>Araniella alpica</i> - <i>Nuctenea umbratica</i>

Arrainak

EAEko ibaien egoera biologikoaren jarraipenerako laginketetan Iñurritza errekan 2016. urtean arrantzatu zuten azken aldiz, honako espezie hauek harrapatu zituztelarik¹⁶:

7. taula: Iñurritza errekan identifikatutako arrain espezieak.

Arrainak
- Aingira (<i>Anguilla anguilla</i>)
- Mazkarra (<i>Barbatula quignardi</i>)
- Korrokoia (<i>Chelon labrosus</i>)
- Loina (<i>Parachondrostoma miegii</i>)
- Ezkailua (<i>Phoxinus phoxinus</i>)
- Platuxa (<i>Platichthys flesus</i>)
- Ibai-amuarraina (<i>Salmo trutta fario</i>)

Arrain komunitatea bai ibaietako espezieetatik eta baita estuarioetakoetatik ere osatuta dagoela ikus daiteke. Aipatu laginketako emaitzen arabera, dentsitate orokorra ertaina da eta biomasa handia; ez da espezie aloktonorik agertzen eta harrapatutako aleetan ez da zauririk antzeman, beraz egoera ona dela deritzote lan horren egileek.

Herpetofauna

Anfibioak eta narrastiak biltzen dituen talde honi buruzko aipamenak hurrengo taulan jasotzen dira: anfibio bakarra eta 6 narrasti, horietako bi, espezie mehatxatuak (beheko taulan, izenaren ondoan Erkidegoko Espezie Mehatxatuen Katalogoko kategoria) eta beste bat (gorriz) Estatuko Espezie Exotiko Inbaditzaileen Katalogoan dagoena.

8. taula: Irita eta Astierrekako eremuen inguruan aipatutako herpetofauna espezieak. IB: EAEko Espezie Mehatxatuen Katalogoan interes bereziko kategorian sarturiko espezieak; gorriz: espezie exotiko inbaditzailea.

Anfibioak	Narrastiak
- Uhandre palmatua (<i>Lissotriton helveticus</i>)	- Musker berdea (<i>Lacerta bilineata</i>)
	- Schreiber muskerra (<i>Lacerta schreiberi</i>) ^{IB}
	- Sugandila arrea (<i>Podarcis liolepis</i>)
	- Horma-sugandila (<i>Podarcis muralis</i>)
	- Floridako apoarmatua (<i>Trachemys scripta</i>)
	- Eskulapio sugea (<i>Zamenis longissimus</i>) ^{IB}

Espero liteke, inguruan dauden hezegune, ibai eta errekaak bezalako igurune-urtarrekin, anfibio espezie gehiagoren aipamenak izatea.

Hegaztiak

¹⁶ Anbiotek-Cimera. 2017. *Red de seguimiento del estado biológico de los ríos de la CAPV*. Campaña 2016. Agencia Vasca del Agua.

Animalia talde honek naturzaleen atentzioa deitu izan du beti, horretaz, beste taldeetan gertatu ohi den ez bezala, datu ugari bildu ahal izan dira, hiritar-zientziako plataformen bitartez. Gainera, landaretzari buruzko atalean aipatu diren lanetan, jardun-esparruko eta Iñurritza inguruko hegazti fauna ere aztertu zuten. Hortaz, iturri guztietako datuekin, 244 espezieko zerrenda osatu daiteke, horien artean Erkidegoko Espezie Mehatxatuen Katalogoan sartuak 63: 4 galtzeko arriskuan (GA) kategoriarean, 11 kaltebera (K) kategoriarean, 24 bakana (B) kategoriarean eta 24 interes berezikoan (IB).

9. taula: Irita eta Astierreka eremuetako inguruan aipatutako hegazti espezieak. Letra lodiz: estuarioetan tipikoak diren espezieak; gorritz: aloktonoak; EMK: EAEko Espezie Mehatxatuen Katalogoa; GA: galtzeko arriskuan; K: Kaltebera; B: bakana; IB: interes berezikoak.

Izen zientifikoa	Izen arrunta	EMK
ANATIDAE		
<i>Cygnus olor</i>	Beltxarga arrunta	
<i>Cygnus atratus</i>	Beltxarga beltza	
<i>Anser albifrons</i>	Antzara muturzurria	
<i>Anser anser</i>	Antzara hankagorritza	
<i>Branta bernicla</i>	Branta musubeltza	
<i>Tadorna tadorna</i>	Paita arrunta	
<i>Anas penelope</i>	Ahate txistularia	
<i>Anas strepera</i>	Ipar-ahatea	
<i>Anas crecca</i>	Zertzeta arrunta	
<i>Anas platyrhynchos</i>	Basahatea	
<i>Anas acuta</i>	Ahate buztanluzea	
<i>Anas querquedula</i>	Uda zertzeta	
<i>Anas clypeata</i>	Ahate mokozabala	
<i>Aythya ferina</i>	Murgilari arrunta	
<i>Aythya nyroca</i>	Murgilari arrea	
<i>Somateria mollissima</i>	Eider arrunta	
<i>Melanitta nigra</i>	Ahatebeltz arrunta	
<i>Mergus serrator</i>	Zerra ertaina	
<i>Cairina moschata f. domestica</i>	(pato criollo)	
PHASIANIDAE		
<i>Alectoris rufa</i>	Eper gorria	
<i>Coturnix coturnix</i>	Galeperra	
GAVIIDAE		
<i>Gavia immer</i>	Aliota handia	
PODICIPEDIDAE		
<i>Tachybaptus ruficollis</i>	Txilinporta txikia	B
<i>Podiceps grisegena</i>	Murgil lepagorria	
PROCELLARIDAE		
<i>Fulmarus glacialis</i>	Fulmarra	
<i>Calonectris borealis</i>	Gabai arrea	
<i>Puffinus gravis</i>	Gabai handia	
<i>Puffinus griseus</i>	Gabai iluna	
<i>Puffinus puffinus</i>	Gabai arrunta	
<i>Puffinus mauretanicus</i>	Gabai balearra	
HYDROBATIDAE		

Izen zientifikoa	Izen arrunta	EMK
<i>Hydrobates pelagicus</i>	Ekaitz-txori txikia	B
<i>Oceanodroma leucorhoa</i>	Ekaitz-txori handia	
SULIDAE		
<i>Morus bassanus</i>	Zanga	
PHALACROCORACIIDAE		
<i>Phalacrocorax carbo</i>	Ubarroi handia	
<i>Phalacrocorax aristotelis</i>	Ubarroi mottoduna	K
ARDEIDAE		
<i>Botaurus stellaris</i>	Zezen-txoria	GA
<i>Ixobrychus minutus</i>	Amiltxori txikia	B
<i>Nycticorax nycticorax</i>	Amiltxori arrunta	B
<i>Ardeola ralloides</i>	Lertxuntxo karramarrozalea	IB
<i>Bubulcus ibis</i>	Lertxuntxo itzaina	
<i>Egretta garcetta</i>	Lertxuntxo txikia	
<i>Casmerodius albus</i>	Lertxuntxo handia	
<i>Ardea cinerea</i>	Lertxun hauskara	
<i>Ardea purpurea</i>	Lertxun gorria	B
CICONIDAE		
<i>Ciconia ciconia</i>	Amiamoko zuria	B
<i>Ciconia nigra</i>	Amiamoko beltza	B
THRESKIORNITHIDAE		
<i>Plegadis falcinellus</i>	Beltzarana	
<i>Platalea leucorodia</i>	Mokozabala	K
ACCIPITRIDAE		
<i>Pernis apivorus</i>	Zapelaitz liztorjalea	B
<i>Elanus caeruleus</i>	Elano urdina	
<i>Milvus migrans</i>	Miru beltza	
<i>Milvus milvus</i>	Miru gorria	GA
<i>Neophron percnopterus</i>	Sai zuria	K
<i>Aegypius monachus</i>	Sai motza	
<i>Circaetus gallicus</i>	Arrano sugezalea	B
<i>Circus cyaneus</i>	Mirotz zuria	IB
<i>Circus pygargus</i>	Mirotz urdina	K
<i>Accipiter nisus</i>	Gabiraia	IB
<i>Accipiter gentilis</i>	Aztorea	B
<i>Buteo buteo</i>	Zapelatz arrunta	
<i>Aquila pennata</i>	Arrano txikia	B
PANDIONIDAE		
<i>Pandion haliaetus</i>	Arrano arrantzalea	K
FALCONIDAE		
<i>Falco tinnunculus</i>	Belatz gorria	
<i>Falco columbarius</i>	Belatz txikia	B
<i>Falco subbuteo</i>	Zuhaitz-belatza	B
<i>Falco eleonora</i>	Eleonor belatza	
<i>Falco peregrinus</i>	Belatz handia	B
RALLIDAE		
<i>Rallus aquaticus</i>	Uroilanda handia	B

Izen zientifikoa	Izen arrunta	EMK
<i>Porzana porzana</i>	Uroilanda pikarta	IB
<i>Porzana pusilla</i>	Uroilanda txikia	IB
<i>Porzana parva</i>	Uroilanda hankaberdea	
<i>Gallinula chloropus</i>	Uroiloa	
<i>Fulica atra</i>	Kopetazuri arrunta	
GRUIDAE		
<i>Grus grus</i>	Kurrilo arrunta	IB
OTIDIDAE		
<i>Tetrax tetrax</i>	Basoilo txikia	K
RECURVIROSTRIDAE		
<i>Haematopus ostralegus</i>	Itsas mika	
<i>Himantopus himantopus</i>	Zankaluzea	IB
<i>Recurvirostra avosetta</i>	Abozeta	
BURHINIDAE		
<i>Burhinus oedicnemus</i>	Atalarra	IB
CHARADRIIDAE		
<i>Charadrius dubius</i>	Txirritxo txikia	K
<i>Charadrius hiaticula</i>	Txirritxo handia	
<i>Charadrius alexandrinus</i>	Txirritxo hankabeltza	B
<i>Pluvialis apricaria</i>	Urre-txirri arrunta	
<i>Pluvialis squatarola</i>	Txirri grisa	
<i>Vanellus vanellus</i>	Hegabera	
SCOLOPACIDAE		
<i>Calidris canutus</i>	Txirri lodia	
<i>Calidris alba</i>	Txirri zuria	
<i>Calidris minuta</i>	Txirri txikia	
<i>Calidris ferruginea</i>	Txirri kurlinta	
<i>Calidris maritima</i>	Txirri iluna	
<i>Calidris alpina</i>	Txirri arrunta	B
<i>Philomachus pugnax</i>	Borrokalaria	
<i>Gallinago gallinago</i>	Istingor arrunta	
<i>Scolopax rusticola</i>	Oilagorra	
<i>Lymnocyrtus minimus</i>	Istingor txikia	
<i>Limosa limosa</i>	Kuliska buztanbeltza	
<i>Limosa lapponica</i>	Kuliska gorria	
<i>Numenius phaeopus</i>	Kurlinta bekainduna	
<i>Numenius arquata</i>	Kurlinta handia	
<i>Tringa erythropus</i>	Bernagorri iluna	
<i>Tringa totanus</i>	Bernagorri arrunta	
<i>Tringa nebularia</i>	Kuliska zuria	
<i>Tringa ochropus</i>	Kuliska iluna	
<i>Tringa glareola</i>	Kuliska pikarta	
<i>Tringa stagnatilis</i>	Urmael-bernagorria	
<i>Actitis hypoleucos</i>	Kuliska txikia	B
<i>Arenaria interpres</i>	Harri-iraularia	
<i>Phalaropus fulicarius</i>	Mendebal-txori mokolodia	
STERCORARIDAE		

Izen zientifikoa	Izen arrunta	EMK
<i>Stercorarius pomarinus</i>	Marikoi itsasbihurra	
<i>Stercorarius longicaudus</i>	(págalo rabero)	
<i>Stercoraria skua</i>	Marikoi handia	
LARIIDAE		
<i>Larus melanocephalus</i>	Antxeta burubeltza	
<i>Hydrocoloeus minutus</i>	Antxeta txikia	
<i>Larus sabini</i>	Sabine antxeta	
<i>Larus audouinii</i>	Auduin-kaioa	
<i>Chroicocephalus ridibundus</i>	Antxeta mokogorria	
<i>Larus delawarensis</i>	Delaware-kaioa	
<i>Larus canus</i>	Kaio mokohoria	
<i>Larus fuscus</i>	Kaio iluna	IB
<i>Larus glaucoides</i>	Kaio hegalzuria	
<i>Larus argentatus</i>	Kaio hausgara	
<i>Larus cachinnans</i>		
<i>Larus michahellis</i>	Kaio hankahoria	
<i>Larus hyperboreus</i>	Ipar-kaioa	
<i>Larus marinus</i>	Kaio beltza	
<i>Rissa tridactyla</i>	Antxeta hankabeltza	
STERNIDAE		
<i>Sterna sandvicensis</i>	Txenada hankabeltza	
<i>Sterna hirundo</i>	Txenada arrunta	
<i>Sternula albifrons</i>	Txenada txikia	
<i>Chlidonias hybrida</i>	Itsas-enara musuzuria	
ALCIDAE		
<i>Uria aalge</i>	Martina	
<i>Alca torda</i>	Pottorroa	
<i>Fratercula arctica</i>	Lanperna-musua	
COLUMBIDAE		
<i>Columba livia</i>	Haitz-usoa	
<i>Columba oenas</i>	Txoloma	
<i>Columba palumbus</i>	Pagausoa	
<i>Streptopelia decaocto</i>	Usapal turkiarra	
<i>Streptopelia turtur</i>	Usapala	
CUCULIDAE		
<i>Cuculus canorus</i>	Kuku arrunta	
TYTONIDAE		
<i>Tyto alba</i>	Hontza zuria	
STRIGIDAE		
<i>Athene noctua</i>	Mozoloa	
<i>Strix aluco</i>	Urubia	
<i>Asio otus</i>	Hontz ertaina	
<i>Asio flammeus</i>	Zingira-hontza	B
CAPRIMULGIDAE		
<i>Caprimulgus europaeus</i>	Zata	IB
APODIDAE		
<i>Apus melba</i>	Malkar-sorbeltza	IB

Izen zientifikoa	Izen arrunta	EMK
<i>Apus apus</i>	Sorbeltz arrunta	
ALCEDINIDAE		
<i>Alcedo atthis</i>	Martin arrantzalea	IB
UPUPIDAE		
<i>Upupa epops</i>	Argi-oilarra	K
PICIDAE		
<i>Jynx torquilla</i>	Lepitzulia	IB
<i>Picus viridis</i>	Okil berdea	
<i>Dendrocopos major</i>	Okil handia	
<i>Dendrocopos minor</i>	Okil txikia	IB
ALAUDIDAE		
<i>Alauda arvensis</i>	Hegatxabal arrunta	
HIRUNDINIDAE		
<i>Riparia riparia</i>	Uhalde-enara	K
<i>Ptryonoprogne rupestris</i>	Haitz-enara	
<i>Hirundo rustica</i>	Enara arrunta	
<i>Delichon urbicum</i>	Enara azpizuria	
MOTACILLIDAE		
<i>Anthus trivialis</i>	Uda-txirta	
<i>Anthus pratensis</i>	Negu-txirta	
<i>Anthus petrosus</i>	Itsas txirta	
<i>Anthus spinoletta</i>	Mendi-txirta	
<i>Motacilla flava</i>	Larre-buztanikara	
<i>Motacilla cinerea</i>	Buztanikara horia	
<i>Motacilla alba</i>	Buztanikara zuria	
TROGLODYTIDAE		
<i>Troglodytes troglodytes</i>	Txepetxa	
PRUNELLIDAE		
<i>Prunella modularis</i>	Tuntun arrunta	
TURDIDAE		
<i>Erithacus rubecula</i>	Txantxangorria	
<i>Luscinia megarhynchos</i>	Urretxindorra	
<i>Luscinia svecica</i>	Paparrurdina	
<i>Phoenicurus ochruros</i>	Buztangorri iluna	
<i>Phoenicurus phoenicurus</i>	Buztangorri argia	K
<i>Saxicola rubetra</i>	Pitxartxar nabarra	IB
<i>Saxicola rubicola</i>	Pitxartxar burubeltza	
<i>Saxicola torquatus</i>	Pitxartxar afrikarra	
<i>Oenanthe oenanthe</i>	Buztanzuri arrunta	
<i>Turdus torquatus</i>	Zozo paparzuria	IB
<i>Turdus merula</i>	Zozo arrunta	
<i>Turdus pilaris</i>	Durdula	
<i>Turdus philomelos</i>	Birigarro arrunta	
<i>Turdus iliacus</i>	Birigarro txikia	
<i>Monticola solitarius</i>	Harkaitz-zozo urdina	IB
SYLVIIDAE		
<i>Cettia cetti</i>	Errekatxindorra	

Izen zientifikoa	Izen arrunta	EMK
<i>Cisticola juncidis</i>	Ihi-txoria	
<i>Locustella naevia</i>	Benarriz nabarra	
<i>Locustella luscinioides</i>	Benarriz gorritzta	GA
<i>Acrocephalus paludicola</i>	Ur-benarriza	IB
<i>Acrocephalus schoenobaenus</i>	Benarriz arrunta	GA
<i>Acrocephalus scirpaceus</i>	Lezkari arrunta	B
<i>Acrocephalus arundinaceus</i>	Lezkari karratxina	B
<i>Hippolais polyglotta</i>	Sasi-Txori arrunta	
<i>Sylvia undata</i>	Etze-txinboa	
<i>Sylvia cantillans</i>	Txinbo papargorritzta	IB
<i>Sylvia melanocephala</i>	Txinbo burubeltza	
<i>Sylvia communis</i>	Sasi-txinboa	
<i>Sylvia borin</i>	Baso-txinboa	
<i>Sylvia atricapilla</i>	Txinbo kaskabeltza	
<i>Phylloscopus inornatus</i>	(mosquitero bilistado)	
<i>Phylloscopus bonelli</i>	Txio lepazuria	
<i>Phylloscopus ibericus</i>	Txio iberiarra	
<i>Phylloscopus collybita</i>	Txio arrunta	
<i>Phylloscopus trochilus</i>	Txio horia	B
<i>Regulus regulus</i>	Mendi-erregetxo	
<i>Regulus ignicapilla</i>	Erregetxo bekainzuria	
MUSCICAPIDAE		
<i>Muscicapa striata</i>	Euli-txori grisa	
<i>Ficedula hypoleuca</i>	Euli-txori beltza	B
AEGITHALIDAE		
<i>Aegithalos caudatus</i>	Buztanluzea	
PARIDAE		
<i>Poecile palustris</i>	Kaskabeltz txikia	
<i>Periparus ater</i>	Pinu-kaskabeltza	
<i>Lophophanes cristatus</i>	Amilotx mottoduna	
<i>Cyanistes caeruleus</i>	Amilotx urdina	
<i>Parus major</i>	Kaskabeltz handia	
SITTIDAE		
<i>Sitta europaea</i>	Garrapoa	
CERTHIIDAE		
<i>Certhia brachydactyla</i>	Gerri-txori arrunta	
REMIZIDAE		
<i>Remiz pendulinus</i>	Dilindaria	IB
LANIIDAE		
<i>Lanius collurio</i>	Antzandobi arrunta	
<i>Lanius senator</i>	Antzandobi kaskagorria	K
CORVIDAE		
<i>Garrulus glandarius</i>	Eskinosoa	
<i>Pica pica</i>	Mika	
<i>Pyrrhocorax pyrrhocorax</i>	Belatxinga mokogorria	IB
<i>Corvus corone</i>	Belabeltza	
<i>Corvus corax</i>	Erroia	IB

Izen zientifikoa	Izen arrunta	EMK
STURNIDAE		
<i>Sturnus vulgaris</i>	Araba zozo pikarta	
PASSERIDAE		
<i>Passer domesticus</i>	Etxe-txolarrea	
<i>Passer montanus</i>	Landa-txolarrea	
<i>Passer hispaniolensis</i>	(gorrión moruno)	
ESTRILDIDAE		
<i>Estrilda astrild</i>	(pico de coral)	
<i>Erythrura gouldiae</i>	(diamante de Gould)	
FRINGILLIDAE		
<i>Fringilla coelebs</i>	Txonta arrunta	
<i>Fringilla montifringilla</i>	Negu-txonta	
<i>Serinus serinus</i>	Txirriskil arrunta	
<i>Serinus canaria</i>	Kanarioa	
<i>Carduelis chloris</i>	Txorru arrunta	
<i>Carduelis carduelis</i>	Karnaba	
<i>Carduelis spinus</i>	Tarina	IB
<i>Carduelis cannabina</i>	Txoka arrunta	
<i>Bucanetes githagineus</i>	(camachuelo trompetero)	
<i>Pyrrhula pyrrhula</i>	Gailupa	
<i>Coccothraustes coccothraustes</i>	Mokolodia	IB
EMBERIZIDAE		
<i>Emberiza citrinella</i>	Berdantza horia	
<i>Emberiza cirrus</i>	Hesi-berdantza	
<i>Emberiza cia</i>	Mendi berdantza	
<i>Emberiza schoeniclus</i>	Zingira-berdantza	B
<i>Emberiza calandra</i>	Gari-berdantza	

Azpimarratzekoa da zerrenda honetan estuarioetako espezieek daukaten presentzia (112 espezie, aipatutakoen % 46). Hein handi batean, hau hala da Iñurritzako Biotopoan 2008-2009 urteetan egindako habitataren hobekuntza ekologikoari esker.

Hala ere, argitu behar da gauza bat aipamen soilak direla eta bestea, ugalketa. Katalogatuta dauden espezieen artean, esaterako, zehazki lezkadietan ugaltzen diren espezieei dagokienean, hau da, lezkari arrunta (*Acrocephalus scirpaceus*), lezkari karratxina (*A. arundinaceus*), benarriz arrunta (*A. schoenobaenus*), benarriz gorritzta (*Locustella luscinioides*) eta zingira-berdantza (*Emberiza schoeniclus*), 2006 eta 2007. urteetan EAEko lezkadietako espezie hauen populazio habiagilea erroldatu zen^{17,18,19}. Aztertutako kokaguneetako bat Asti-

¹⁷ Etzaniz, M. & Fernández, J.M. 2006. *Informe sobre los trabajos de búsqueda de poblaciones nidificantes de carricerín común Acrocephalus schoenobaenus en Gipuzkoa*. Eusko Jaurlaritzza.

¹⁸ Fernández, J.M. 2006. *Informe sobre los trabajos de búsqueda y censo de poblaciones nidificantes de escribano palustre Emberiza schoeniclus en la CAPV*. Eusko Jaurlaritzza.

¹⁹ Fernández, J.M., Gurrutxaga, M., Belamendia, G., Gutiérrez, E.M. & Etzaniz, M. 2007. *Censo y estado de conservación de las poblaciones nidificantes de carricero tordal Acrocephalus arundinaceus, carricero común A. scirpaceus y buscarla unicolor Locustella luscinioides en la Comunidad Autónoma del País Vasco. Temporada 2007*. Eusko Jaurlaritzza.

Itsasmandiko lezkadia izan zen eta emaitzen arabera, lezkari arruntak baino ez zuen populazioa mantentzen bertan.

Lan hauen ondoren espezie hauek ikuskatu izan dira, pasean edo negu-pasa. Honek esan nahi du jardun-esparruko lezkadia, hegaztien migrazioan ‘stopover’ edo atsedeneku garrantzitsua dela egun dagoen moduan eta hortaz eremua babestea justifikatuta egongo litzateke. Izan ere, Aranzadiko ornitologia sailekoek argitaratutako artikulua batean²⁰ lezkadi honen garrantzia azpimarratzen dute: “Lezkadi horietan detektatutako espezie mehatxatuen berezitasunek bihurtu dute Asti ezohiko kokalekua Gipuzkoako probintzian; Txingudiko Jaizubiako lezkadietako hegazti palustreen migrazio-mailarekin bakarrik konpara daitekeena”.

Gainera, habitat honen kontserbazio egoera hobetzeko egokitzea ahalbidetuz gero, aipatutako intereseko espezieak berriz ere ugaltzeko erakargarriago bihurtzeko potentziala duela pentsa liteke.

Ugaztunak

Ornodun talde hau osatzen duten animaliak ez dira oso nabariak izaten, hala ere, 12 taxoen aipamenak bildu ahal izan dira, Arkamurkako aipatu txostenaren eta hiritar zientziako plataformen artean, horietatik 3 saguzar katalogatuak:

10. taula: Irita eta Astierrekako eremuen inguruan aipatutako ugaztun espezieak. Goi-indizean EAEko Espezie Mehatxatuen Katalogo kategoriak: K-kaltebera, B-bakana, IB-interes berezikoa.

Ugaztun taldea	Espezieak
Intsektiboroak	- Satitxu arrunta (<i>Crocidura russula</i>) - Triku arrunta (<i>Erinaceus europaeus</i>)
Karraskariak	- Mendebaldeko ur-arratoia (<i>Arvicola sapidus</i>) - Arratoi arrunta (<i>Rattus norvegicus</i>) - Arratoi beltza (<i>Rattus rattus</i>)
Mustelidoak	- Erbinudea (<i>Mustela nivalis</i>)
Ungulatuak	- Orkatza (<i>Capreolus capreolus</i>)
Kiropteroak	- Baratze-saguzarra (<i>Eptesicus serotinus</i>) ^B - Natterer saguzarra (<i>Myotis nattereri</i>) ^B - Gau-saguzar handia (<i>Nyctalus lasiopterus</i>) ^K - Pipistrello arrunta (<i>Pipistrellus pipistrellus</i>) - Kühlen pipistrelloa (<i>Pipistrellus kuhlii</i>)


2.1.9. Konektagarritasun ekologikoa

Espezieek lekualdatzeko beharra daukate elikatzeko, ugaltzeko, babesa aurkitzeko edo klima egokiagoaren bila abiatzeko. Lekualdaketa edo joan-etorri hauek egunerokoak izan daitezke, urtaroren arabekoak edo sakabanatze-fenomeno baten ondorio.

²⁰ Aldalur, A., Etxezarreta, J., Goikoetxea, J., Jauregi, J.I., Sánchez, J.M. & Arizaga, J. 2011. ¿Es importante el carrizal de Asti (Zarautz, Gipuzkoa) como área de descanso para las aves paseriformes transaharianas? *Munibe* 59: 29-39.

Testuinguru honetan, lurralde bateko konektagarritasun ekologikoaz ari garenean, lurralde horretako habitat ezberdinen artean espezieak joan-etorriak egiteko erraztasun edo oztopomailaz ari gara. Habitaten galerak, lurzorua erabileran aldaketak edo hirigintza- eta azpiegitura-garapenek antzeko ekosistemen arteko loturak mugatzen dituzte eta espezieek bide batzuek besteak baino nahiago izatea eragiten dute: hauei korridore ekologikoak deritze.


2005ean EAEko Korridore Ekologikoen Sarea²¹ irudikatu zen: jardun-esparrua sare honetatik kanpo geratzen zen, baina Pagoetako 'nukleo-gune' eta 'indargetze-eremu'tik gertu (16. irudia). 2016an, metodologia berriarekin EAEko "azpiegitura berdea"²² proposatu zen, honetan, jardun-esparruko hezeguneak, Iñurritzako Biotopoaren moduan, 'biodibertsitate erreserba' bezala adierazten direlarik (17. irudia).



16. irudia: EAEko Korridore Ekologikoen Sareko xehetasuna. Iturria: Gurrutxaga, 2005.

²¹ Gurrutxaga, M. 2005. *Red de Corredores Ecológicos de la Comunidad Autónoma de Euskadi. Síntesis*. IKT SA. Gobierno Vasco-Eusko Jaurlaritza.

²² Ekolur. 2016. *Infraestructura verde de la CAPV. Propuesta metodológica para la identificación y representación de la infraestructura verde a escala regional de la CAPV*. Eusko Jaurlaritza.




17. irudia: EAEko Azpiegitura Berdearen xehetasuna. Iturria: Ekolur, 2016.

Zentzu honetan, Irita eta Astierrekako esparruak, Iñurritzako Biotopoa eta Pagoetako Parke Naturalaren artean kokatuta izanik, bi naturagune babestu hauen arteko lotura ekologikoan garrantzia daukate, hiru eremu hauek korridore potentzial berean lerrokatuta daudelarik.

Jardun-esparruaren eskalan lurreko konektagarritasuna aztertuta, alde batetik, Irita eta Astierrekako eremuen artean, AP-8 autobideko sarrera/irteera errepideak oztopo egiten duela argi dago; hala ere, azpitik igarotzen den Astierreka ur-ibilguak elkarren arteko korredore-papera betetzen duela esan daiteke.

Bestetik, jardun-esparruak Iñurritzarekin egun daukan lotura zuzen bakarra, Iñurritza erreka ematen diona da, bi naturagune hauen artean kokatutako errepide ezberdinen eta trenbidearen azpitik igarotzen baita. Aldiz, esparruaren hegoaldean kokatutako lurrekin lotura AP-8 autobideak eteten du, honen azpitik igarotzen diren eta Asti auzora doazen errepideak dauden puntuetan izan ezik (18. irudia).

Azaldu behar da, animalia talde ezberdinek joan-etorriak egiteko behar ezberdinak dituztenez, aipatu lotura horien eraginkortasuna ere ezberdina izan daitekeela, beraz jardun-esparruaren konektagarritasuna mugatua dela, baina indartzeko potentzialarekin.



18. irudia: Jardun-esparruaren konektagarritasuna: oztopoak saihesteko bide nagusiak. Urdinez: ur-ibilguak; gorriz: bidegorri eta errepide txikiak.

2.1.10. Paisaia

Paisaiaren Europako Hitzarmenak honela definitzen du paisaia kontzeptua: “lurraldearen edozein zati, biztanleriak hautematen duen moduan, zeinaren izaera natur edota giza faktoreen ekintzaren eta elkarreraginaren emaitza baita”. Ekosistemen zerbitzu kulturelei (inspirazio estetiko, intelektual eta espirituala, aisialdi-esperientziak, etab.) loturik dagoenez, paisaiari gizakien ongizatea eta lurralde bateko identitatea bermatzeko orduan garrantzia daukala onartzen zaio.

Jardun-esparrua Zarauzko ikusmen-arroan kokatzen da EAEko Paisaia Berezien eta Apartekoen Katalogoaren Aurreproiektuaren kartografiaren²³ arabera, paisaia-kalitate oso txikikoa.

Zarautz-Azpeitia Eremu Funtzionaleko Paisaia Katalogoan²⁴, ‘Urola Kostako itsasertza’ izeneko paisaiaren unitatean kokatzen da. Honetan itsaslabarrak, landazabal atlantikoa, garraiobide-azpiegituren ardatza eta hiriguneak dira ezaugarri bereizgarrienak. Hainbat inpaktu eta aukera adierazten dituzte, horien artean jardun-esparruari dagozkionak:

²³ IKT & Paisaia. 2005. *Catálogo Abierto de Paisajes Singulares y Sobresalientes de la CAPV – Anteproyecto*. Eusko Jaurlaritza.

²⁴ LKS. 2011. *Zarautz-Azpeitia Eremu Funtzionaleko Paisaia Katalogoa*. Eusko Jaurlaritza.

- Inpaktuak: Positiboen artean, ondare naturala eta balio ekologikoak; negatiboen artean, paisaiaren aldetik integratu gabeko elementu bezala Zarauzko AP-8 lotura eta aparkalekua.
- Aukerak: “Espazio hauetako eremuetan natura eta paisaia balioak berreskuratu eta hobetzeaz gain, duen izaera berezia zabaltzea merezi luke, haren osagarri. Adibide batzuk: Inurritzako biotopoan egindako esku-hartzea osatzeko, erreka horren ubidea hobetu behar da, ubidetik aterata besteak beste, eta hiri-ertza arretaz tratatuta babestutako espazio horren mugan. (...)”.

2.2. ANTOLAMENDU-TRESNAK ETA ARAUDIA

2.2.1. Interes Naturalistikoko Eremuak eta Eremu babestuak

Natura Ondareari eta Bioaniztasunari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legeko 28. artikulua definitzen duenaren arabera, naturagune babestu izango dira lurralde nazionalako guneak —ur kontinentalak barne— eta itsas ingurunea —ekonomia-eremu eskusiboa eta plataforma kontinentalak barne—, betiere honako baldintza hauetako bat, gutxienez, betetzen badute eta naturagune babestu deklaritzen badira:

- a) Bertako natura-sistema edo -elementuak adierazgarriak, apartekoak, hauskorak edo mehatxatuak izatea edo interes berezikoak izatea ekologia, zientzia, paisaia, geologia edo hezkuntzaren aldetik.
- b) Gunea berariaz izatea dibertsitate biologikoa, geodibertsitatea eta aurrekoei lotutako natura- eta kultura-baliabideak babestu eta iraunarazteko gune izatea.

Abenduaren 13ko 42/2007 Legeak eremu babestuko sistema bat ezartzen du, hiru mailatan sailkatuta:

- Naturagune babestuak
- Natura 2000 Sareko eremu babestuak
- Nazioarteko tresnek babestutako eremuak

Naturagune babestuak honako mailatan sailkatzen dira:

- a) Parkeak
- b) Natura-erreserbak
- c) Itsas inguru babestuak
- d) Natura monumentuak
- e) Paisaia babestuak

Bestalde, 1/2004 Legegintzako Dekretuak, apirilaren 15ekoak, Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen testuategina onartzen duenak 13. artikuluan ezarritakoaren arabera, naturagune babestuek ondorengo maila horietako bat izango dute:

- a) Natura-parkea
- b) Biotopo babestua
- c) Zuhaitz apartekoa
- d) Europako Natura 2000 Sarean sartutako eremu edo lekua (Batasunaren garrantzizko lekuak -BGL-, kontserbazio bereziko eremuak -KBE- eta hegaztientzako babes bereziko eremuak -HBBE-), a), b) eta c) aurreko kategoriekin eremuz, osoki edo partzialki, batera suertatzen bada ere.

Horrela, natura-eremu babestuko sareari, oinarrizko legediaren bitartez, biotipo babestuak eta zuhaitz apartekoak gehitzen zaizkio.

Natura 2000 Sareko eremu babestuek barne hartzen dituzte Batasunaren Garrantzizko Lekuak (BGL) Kontserbazio Bereziko Eremu (KBE) bihurtu arte, eta Hegaztientzako Babes Bereziko Eremuak (HBBE). Eremu horien kudeaketak eskakizun ekologikoak, ekonomikoak, sozialak eta kulturalak hartzen ditu aintzat, baita eskualdeko eta tokiko berezitasunak ere.

Abenduaren 13ko 42/2007 Legeko 50. artikuluen arabera, **nazioarteko tresnek babestutako eremutzat** hartuko dira Espainia partaide izango den nazioarteko Hitzarmen eta Akordioetan xedatutakoaren arabera formalki izendatuko diren natura-eremu guztiak, eta zehazki, ondorengoak:

- a) Nazioartean garrantzia duten hezeguneei buruzko hitzarmenaren arabera, nazioartean garrantzitsuak diren hezeguneak, bereziki hegazti urtarren habitat badira.
- b) Munduko Kultura eta Natura Ondarea Babesteari buruzko Konbentzioko Munduko Ondarearen zerrendako naturaguneak.
- c) Ipar-ekialdeko Atlantikoko itsas ingurunea babesteko Hitzarmeneko (OSPAR) eremu babestuak.
- d) Mediterraneoarentzat Garrantzizko Babes Bereziko Eremuak (ZEPIM), Mediterraneoako itsas ingurunea eta kostaldea babesteko hitzarmenekoak.
- e) Geoparkeak, UNESCOk aitortuak.
- f) Biosferako erreserbak, UNESCOk aitortuak.
- g) Europako Kontseiluaren erreserba biogenetikoak.

Eremu horiei babes-irudia duten ibai-erreserba naturalak gehitzen zaizkie, helburu izanik gizakiaren esku-hartze txikia duten edo esku-hartzerik gabe dauden, eta egoera ekologiko ona duten ibai-tarteak zaintzea. Hala aitortzen dira uraren legearen testuategina onartzen duen uztailaren 20ko 1/2001 Legegintzako Errege Dekretua betez. Legeak aurreikusten du Estatuaren eskumenekoak diren Plan Hidrologikoetan nahitaez txertatzea ibai-erreserba natural izendatu beharreko eremu horiek.

Irita eta Atierreka eremua ez daude inongo eremu babesturen barnean. Hala ere, ikerketa eremuaren iparraldean kokatzen dira Iñurritzako KBE (ES2120009) eta Iñurritzako Biotopo babestua, hauen mugaketak desberdinak direlarik (19.irudia).



19. irudia: Ikerketa eremuaren inguruko Eremu babestuak. Iturria: Geoeuskadi.

2018ko maiatzaren 21eko Euskadiko Natura-ondarea kontserbatzeko Legearen aurreproiektuaren arabera, Biotopo babestuak ez dira bilduko eremu babestuen kategorien artean. Eremu babestuen tipologiaren eta kategorien arteko gainjartzearen inguruko artikulua transkribatzen dira jarraian:

37. artikulua. Tipologia. Naturagune babestuak kategoriatuak batean sailkatzen dira:

1. Naturagune babestuak. Kategoriatuak dira parke naturalak, erreserba naturalak, monumentu naturalak eta pasaia babestuak
2. Natura 2000 Sareko guneak. Kategoriatuak dira Batasunaren garrantzizko lekuak (BGL), Kontserbazio Bereziko Eremuak (KBE) eta Hegaztientzako Babes Bereziko Eremuak (HBBE).
3. Naturagune babestuak nazioarteko tresnak aplikatzearen ondorioz. Kategoriatuak dira biosferaren erreserbak, RAMSARn hitzarmenaren nazioarteko garrantzizko hezeguneak, UNESCOk deklaratuak geoparkeak, OSPAR hitzarmenak babestutako eremuak, Munduko Ondarearen Zerrendako naturaguneak eta Europako Kontseiluaren erreserba biogenetikoak.

38.artikulua. Kategoriatuak gainjartzea

1. Leku berean gainjartzen badira naturagune babestuen hainbat kategoria, babesaren eta kategoria bakoitzari aplika dakizkiokeen araubideen arteko koherentzia bermatzeko, eremu bakoitzaren arau espezifiko araugileak eta tipologia bakoitzaren araudi orokor araugileak eskatzen dituen plangintzatresnak dokumentu integratu bakarrean bateratu behar dira.

2. Lurralde bakarrean gainjartzen diren hainbat kategorien artean Baliabide Naturalak Antolatzeke Plana duen bat badago, aurreko apartatuan aipatzen den integrazioa gauzatu egin behar da plangintza-tresna horretan.

3. Lurralde berean gainjartzen diren naturagune babestuak kudeatzeko plangintzatresnak, halaber, bateratu egin behar dira dokumentu integratu batean. Lurralde berean hainbat kategoria gainjartzen direnean baten batek erabilpenerako eta kudeaketarako egitamu bat badu, kudeaketa-plangintzako tresnak bertan integratu behar dira.

Lehen xedapen gehigarria. Biotopo babestuen araubidea

Eusko Jaurlaritzaren akordio bidez, Lege hau indarrean jartzean deklaratura dagoen biotopo babestu bakoitzaren izena naturagune babestuen tipologia egokienera egokituko da, 39. artikuluan ezarritakoaren arabera. Izen berria izateak ez du esan nahi biotopoaren deklarazio-dekretua aldatzeko prozedura izapidetu behar denik. Tipologia berrietara egokitzeko prozesua naturagune babestu baten deklaraziodekretuaren bidez edo, kasuaren arabera, Baliabide Naturalak Antolatzeke Planaren bidez ere egin daiteke. Natura-erreserba izena hautatzen bada, akordioak aldi berean dagokion Baliabide Naturalak Antolatzeke Plana egiteko prozedura hasteko agindu behar du. Abiatutako akordioa Aldizkari Ofizialean argitaratzen den momentura arte, Biotopo Babestuek izen hori mantentzen dute.

Iñurritza Kontserbazio Bereziko Eremua ES2120009

Kontseiluaren 1992ko maiatzaren 21eko 92/43/EEE Zuzentaraua, habitat naturalak eta basoko fauna eta flora babesteari buruzkoa, Europako lurraldean habitat naturalen, flora eta faunaren kontserbazioaren bitartez biodibertsitatea bermatzea du helburu.

Aipaturiko helburu horiek lortzeko Zuzentaru honek duen tresna nagusia Kontserbazio Bereziko Eremuek osaturiko Europa mailako Sare Ekologiko baten sorrera da, "Natura 2000" deiturikoa.

92/43/EEE Zuzentaruaren ezarpenari dagokionez, 1997. urtean abenduaren 23ko Gobernu Batzordearen Akordioaren bitartez, Iñurritza Europar Batasunaren Garrantzizko Leku (BGL) moduan Natura 2000 Sarean sartzeko proposatu zen.

Geroago, abenduaren 7ko 2004/813/EE Erabakiaren eranskinean agertzen den Batasunaren Garrantzizko Lekuen zerrendan sartu zen, 92/43/EEE Zuzentaruak ezartzen duenaren arabera eginiko Atlantikoko eskualde biogeografikoko Batasunaren Garrantzizko Lekuen zerrendan. Zerrenda hau eguneratzen joan da Erabakien bitartez.

Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/43/EE Zuzentarauko 4. artikulua eta Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legearen 44-45. artikulua arabera, Iñurritza Kontserbazio Bereziko Eremu ES2120009 izendatu zen urriaren 16ko 215/2012 Dekretuari jarraiki, Atlantikoko eskualde biogeografikoko hamalau ibai eta estuario Kontserbazio Bereziko Eremuak izendatu eta kontserbatzeko neurriak onartu zirenean (Gobernu Kontseiluaren 2012ko urriaren 16ko akordioa).

Aipatzekoa da EAEko 14 ibaien eta estuarioen KBE izendatzeko prozesuarekin zerikusia duten Administrazio Publikoek eta beste eragile batzuek aurkeztutako alegazioei erantzuteko aurkeztutako txostenean, BGL/KBE-en mugapena handitzeko proposatutako balizko arrazoiei buruz honako hau adierazten dela:

Alegazio-multzo honi dagokionez, adierazi behar da Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailak Europako Batzordeak 2004an BGL onartu zuen eremuen mugaketari jarraikiz KBE-en izendapena izapidetzea erabaki du. Beraz, lekuen mugaketari buruzko alegazioak BGL-en mugaketa zabaltzeko espedientearen esparruan aztertu eta erantzungo dira.

Bestalde Zarauzko Ezker Batua – Aralar Udal-taldea, Aranzadi Zientzia Elkartea, Arkamurka Natur Taldea eta partikular batek Asti edo Sakeletxe ingurua eremu babestura gehitzea eskatzen dute eta txosten bat eransten dute non proposatutako zabalkuntza justifikatzen den eremuaren balioak azpimarratuz.

Nabarmentzekoa da Irita eta Asti hezeguneak, Zarauzko udalerrian kokatuak, Iñurritzako KBE-arekin batera estuario motako gune ekologiko garrantzitsua osatzen dutela.

Hezegune horietan egindako zenbait azterlanek agerian utzi dute gaur egun babestu gabeko bi eremu horien balioa, bai biodibertsitatearen ikuspegitik, bai beste zerbitzu ekosistemiko batzuen ikuspegitik, esaterako, inguruko eremu urbanizatuen uholde arriskua arintzea.

Alabaina, urrekaren ubideratzeak, zeharkatzen dituzten azpiegiturak eta ertzak okupatzeak eremu horiek KBEen parte den errearen beheko aldearekiko lotura galdu izana eragiten dute.

KBEaren kontserbazio egoera nabarmen hobetu da azken urteetan, bertan egindako esku-hartzeen ondoren.

Iñurritza KBE-ko funtsezko elementuak ondorengoak dira:

- Estuario-sistema
- Duna-sistema
- Besteak: Labarretako espezie eta habitatak, hemen sartzen dira Itsaslabarrak (KOD. EB 1230. Atlantikoko eta Baltikoko kostako landaredia duten itsaslabarrak) eta Kostako *Erica vagans*-eko txilardi lehorrak (KOD. EB 4040*), *Trichomanes speciosum* iratzea eta *Euphydryas aurinia* lepitopteroa.

Iñurritzako KBE-an agertzen diren Habitaten Zuzentzarauko I. eranskineko habitatak honakoan dira:

11. taula: Iñurritzako KBE-an agertzen diren Habitaten Zuzentzarauko I. eranskineko habitatak.


Izena	Kodea	Azalera (ha)	KBE %
Estuarioak	1130	4,02	4,95
Itsas hondakinetak urteko landaredia	1210	0,18	0,22
Itsaslabarrak	1230	3,08	3,79
Paduretako urteko landaredi halofiloa	1310	(1)	
<i>Spartina</i> zelaia	1320	0,05	0,056
Paduretako larre/ihitoki halofiloak	1330	0,61	0,75
Paduretako sastrakadi halofiloak	1420	0,27	0,33
Duna aintzindariak	2110	0,33	0,41
Duna mugikorak <i>Ammophila arenaria</i> ekin	2120	0,57	0,71
Duna gris finkatuak	2130*	6,05	6,93
Txilardi lehor azidofiloak	4030	5,78	6,61
Kostaldeko txilardi lehorrak	4040*	34,39	42,32

(1) Ia ez dago, inguruan kartografia ezina den orban txiki bat agertzen da.


“Estuarioak” 1130 habitata, KBE-ko ugariena, habitat mota orokorra da, hau da, eremu honetan identifikatu diren paduretako habitat asko biltzen ditu. Habitat mota hau eta lezkaduak bezalako beste batzuk, gaur egun Astierrekako eremu txiki ez okupatueta agertzen direnak, Hegaztien Zuzentzarauan sartutako espezieei ostatu emateko gai dira.

2.2.2. Urola-kostako eremu funtzionaleko Lurraldearen Plan Partziala

Urola Kostako Lurraldearen Plan Pratzialak (2006. urtean behin betiko onespena) ezarri zuen antolamenduan, aztergai diren bi eremuen lurzorua dentsitate handiko bizitegi-garapena moduan agertzen da; bertan, hirugarren sektoreko eremuak, merkataritza-guneak eta aisialdi-instalazioak ere egongo lirake. Hala ere, azken aldaketa (2016 hasierako onarpena) paisaiaren zehaztapenei buruzkoa da, eta eremu horren zati bat paisaiaren interes bereziko gunearen barruan PIBG 31 "Zarauzko hiri inguruko aldea" kokatzen da, eremuan paisaia berregokitzeko eta balioan jartzeko beharrengatik.



20. irudia: Urola Kostako Lurraldearen Plan Partzialaren antolamendua (2006). Ezkerra) urdina: finkatutako hiriguneak; gorria: dentsitate altuko bizitegi garapena; horia: dentsitate baxuko bizitegi garapena. Eskubia) karratua: hirugarren sektoreko eremuak, merkataritza-guneak eta aisialdi-instalazioak.



21. irudia: Paisaiaren interes bereziko eremuak. Zarautz-Azpeitiko (Urola kosta) eremu funtzionalaren lurralde plan partzialaren 2. Aldaketa (2016).


2.2.3. EAEko Hezeguneen Lurralde Plan Sektoriala

Uztailaren 27ko 160/2004 Dekretuaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezeguneen Lurraldearen Arloko Plana behin betiko onartu zen. Hezeguneetako LAPak EAEko hezeguneak identifikatzen eta inbentariatzen ditu, tipologiaen arabera sailkatzen eta hiru multzotan banatzen ditu LAPean ezarritako erregulazio-motaren arabera.

Hezeguneen LAPa lurralde-antolamenduko tresna bat da, eta horren helburu nagusia, antolamendu-kategorien arabera, zenbait hezeguneren lurzoruen erabilerak arautzea da, Lurraldearen Antolamendurako Gidalerroetan (LAA) ezarrita daudenak. LAPak II. taldea osatzen duten esparruen kasuan soilik ezartzen du araudi hori. I. multzoko hezeguneak Eremu Natural Babesturen baten barruan daudenak dira, eta, beraz, eremu horretarako indarrean dagoen araudia aplikatzen da. III. multzoan, lehendik dagoen informazioa oinarri hartuta,

garrantzi txikiagoa dutela kontsideratzen diren hezeguneak daude, eta horien babeserako eta erabilerako erregimen egoki bat ezartzea gomendatzen da, udalerrri bakoitzaren mailan.

LAPak Iñurritzako Padura (A1G3), biotopo babestuaren eta KBEen mugen barnean, I. multzoan sartzen du. Horrez gain, II. multzoan, Inurritzako itsasadarra sartzen da. Hezegune horren zonifikazioa hurrengo irudian ikus daiteke.



22. irudia: EAEko Hezeguneen LAPa. Iturria: Geoeuskadi.

LAParen arabera, Ingurumena Hobetzeko antolamendu-kategoriaren barruan, Ekosistemen Hobekuntzarako inguruneak (nahiz eta eremu horiek balio ekologikoak, ingurumenekoak edota paisajistikoak izan, tipologia eta gradu ezberdineko aldaketa antropikoak jasan dituzte, baina izaera itzulgarria dutenak) eta Berreskura beharreko ingurune degradatuak (degradatutako eremuak, landazabal eremu antropizatuak, betelanak batzuetan paduretako formazioak tartean dituztela, haltzadiak, etab.; hondakindegia edota partzialki edo erabat finkatutako eremuak (golf zelaia, haztegiak, etc.) hezegunearen inguruan kokatuak eta beste inguru batzuetarako transizio-eremuak dira (hiriguneak eta hezeguneko zuzeneko eraginetik kanpo geratzen diren eremuak)) bereizten dira.

Ekosistemen Hobekuntzarako inguruneetan LAParen irizpide orokorra berreskuratze-lanak garatzea da, askotariko lanen bidez, intereseko ekosistema funtzionalak berreskuratzeke.

Berreskura beharreko ingurune degradatuetan LAParen irizpide orokorra ingurumena lehengoratzeko da, funtsean hezegunearen aurrean inpaktuak moteltzeko gune gisa eremu horiek finkatzeko.


LAParen arabera, ingurumen-hobekuntza honako hau suposatzen du: *“Gunea bere jatorrizko egoerara edo oreka ekologikoko beste egoera baliotsuagoetara birbidera dezaketen tratamenduak. Nagusiki, inguru horren edo bertako sektore baten natur landaretza propioa berregitea dute xedetzat, bere bilakaera propioa ahalbidetuz edo birlandatze zuzendua, oihaneztapena eta sastraka, lar edo larreen garapena bultzatuz, lur gaineko drainatze-sarea berritu edo hobetuz, eta lur-higidura arinak edo bestelako jarduera arin batzuk gauzatuz, helburu horiek lortzearren.”*

2.2.4. EAEko Nekazaritza eta Basogintzako Lurralde Plan Sektoriala (177/2014 Dekretua)

LAP honek, 2014an behin betiko onartua, landa-lurzorurako antolamendu-kategoria batzuk biltzen ditu, eta horietako bakoitzean 'aplikazio-arau espezifikoak' garatu dira, izaera loteslea duen 'Erabilerak eta jarduerak arautzeko matrize' batean erregulatuak.

Irita eremua eta Astierrekako eremuaren zati handi bat lurralde plan sektorial (LPS) honen antolamendu eremutik kanpo geratzen dira, hiri-lorzuroa edo lurzoru urbanizagarriaren parte direlako.

AP-8 autobideko sarbidearen ekialdean dagoen gunea Nekazaritza eta Abeltzaintza nahiz Landazabala kategoriako Trantsiziozko landa paisaia bezala sailkatuta dago.




23. irudia: EAEko Nekazaritza eta Basogintzako LPSaren antolamendu kategoriak. Iturria: Geoeuskadi.

2.2.5. EAEko Ibaien eta Erreken Ertzak Antolatzeko Lurralde Plan Sektoriala

EAEko ibaien eta erreken ertzak antolatzeko Lurraldearen Arloko Planak (Kantauriko isurialdea), behin betiko onartu abenduaren 22ko 415/1998 Dekretuaren bidez onartuak, eta 449/2013 Dekretua, azaroaren 19koa, behin betiko onartutako EAEko Kantauriko eta Mediterraneoko isurialdeko Ibaiak eta Errekak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planaren aldaketak, ibaien eta erreken ertzak hiru osagaitatik antolatzen dituzte: ingurumena, arro hidrolikoa eta hirigintza.

EAEko Ibaien eta Erreken Ertzak antolatzeko kartografiak azterlan dugun eremua zeharkatzen duen Astierreka erreken ibilgua hartzen du. Osagai hidrolikoaren arabera, ur ibilgua 0 mailakoa da, hau da, 1 eta 10 Km² arteko arroaren azalera du. Ingurumen-osagaiaren arabera, Astierreka eremua zeharkatzen duen ubidearen zati bat, AP-8 eta N-634 arteko lotunetik gora, Lehentasuneko Interes Naturalistikoa duten zona moduan sailkatzen da. Hirigintza-osagaiaren arabera, Asti eremua zeharkatzen duen zatia esparru garatuetako ertzetan dago, eta Astierrekaren zatia landa-esparruko ertzetan.



24. irudia: Ertzen sailkapena EAEko Ibai eta erreken LPS-aren arabera. Iturria: Geoeuskadi.

Plan honen arabera, garatutako eremuetako ertzetarako berariazko araudiak dio “[...] gutxieneko eraikuntza-erretiroek eraikuntzaren eta ibaiaren arteko bat egite espazial aski handia bermatuko dute eta, hala badagokio, baita uholdeen aurrean defendatzeko etorkizunean beharrezko izango diren obren bideragarritasuna ere [...]”.

[...]

Garatutako eremuetako ertzetako eraikuntzei dagokienez honakoak izango dira ubide publikoaren mugabanaketa-lerroaren gutxieneko eraikuntza-erretiroak, adar-arroaren azaleraren arabera:

a) Kantauri isurialdeko eta isurialde mediterraneoko ibai-ibilguetarako, Ebro ibaiaren salbuespenaz.

Ibai tartearen maila	Arro isurlearen azalera km ²	Eraikuntzaren gutxieneko atzerapena metrotan	
		Mugatze-lerroa (*) edo ubideratzearen muga definitua duena	Mugatze-lerro edo ubideratzearen muga definitua ez duena
VI	$600 < A$	15 m.	30 m.
V	$400 < A \leq 600 \text{ km}^2$	15 m.	25 m.
IV	$200 < A \leq 400 \text{ km}^2$	15 m.	22 m.
III	$100 < A \leq 200 \text{ km}^2$	12 m.	16 m.
II	$50 < A \leq 100 \text{ km}^2$	10 m.	14 m.
I	$10 < A \leq 50 \text{ km}^2$	10 m.	12 m.
0	$1 < A \leq 10 \text{ km}^2$	10 m.	12 m.

Kontuan izanik Astierreka erreka 0 maila duela tarte horretan, eta Jabari Publiko Hidrauliko mugaketa²⁵ duela, Irita eremuko eraikinekin gutxienez 10 metroko tarte utzi beharko lukete, Uraren Euskal Agentziak ezartzen duenaz gain. Astierreka eremuaren kasuan, landa esparruko ertzak dituen 0 mailako erreka denez, ibilgu publikoa mugatzen duen lerrotik gutxienez 15 m-ko tarte utzi beharko da.

2.2.6. EAEko Kostaldea Babesteko eta Antolatzeko Lurralde Plan Sektoriala (43/2007 Dekretua, martxoaren 13koa eta 32/2016 Dekretua, martxoaren 1ekoa).

LPS hau, 2007an behin betiko onartua, Kostaldee berruzko Legean zehazten den eragin-eremua betetzea agintzen du, hau da, gutxienez 500 metroko zabalerakoa itsasertzeko barnealdeko mugatik.

Zonifikazioa ezartzen du, antolamendu-kategoriak garatuz eta LAAetan ezarritako lurzoruen erabilerak eta jarduerak zehaztuz.

Irita eta Astierrekaren eremuak Itsasertzeko LAParen antolamendu-eremutik kanpo daude.

2.2.7. Zarauzko Hiri Antolamenduaren Plan Orokorra

Zarauzko Hiri Antolamenduaren Plan Orokorra (aurrerantzean ZHAPO) 2008ko otsailean onartu zen.

Azterketa eremuan, ZHAPO-ren arabera bi eremu daude:

²⁵ SHP – Jabari Publiko Hidraulikoa. Jabari Publiko Hidrauliko Kartografiakoa edo ARPIS-en izan daitekeena. Uraren Euskal Agentzia. Iturria: Geoeuskadi.

- 17.2 "Irita" eremua: finkatu gabeko hiri-lurzoru moduan sailkatua.
- 25 "Astierreka" eremua: Sektorizatu gabeko lurzoru urbanizagarri gisa sailkatua (udal lurzoru-erreserba).

"17.2 Irita" eremuak 61.181 m² inguruko azalera hartzen du. Plan Orokorrak finkatu gabeko hiri-lurzoru moduan sailkatzen du jarduera ekonomiko estrategikoak garatzeko zuzendua (teknologia handiko hirugarren sektoreko erabilera, hotel erabilerako zona txiki batekin). Iritako antolamendu xehatua zehazteko eremuaren antolamendu integraleko plan berezi bati jarraituko zaio.

2008an, Udalak eta Zarauzko Industrialdea S.A. sozietate publikoak hitzarmen bat sinatu zuten eremu horren hirigintza garapenerako, ekimen publikoko enpresa-parke bat sustatzeko. Antolamendu-tresnak onartu eta eremuko lursailak eskuratu ziren arren, hirigintza-eragiketa zapuztu egin zen, batez ere, eremuaren uholde-arriskuen eta krisialdi ekonomikoaren ondorioz.

Geroago, 2015ean, hitzarmen berri bat onartu zen Beterri Kostako Industrialdea sozietate publikoarekin, eta, bertan, Udalak konpromisoa hartu zuen, besteak beste, Iritaren antolamendua aldatzeko, hala nola, ingurumen-baldintzak eta uholde-arriskuak kontuan hartuta.

Gaur egun, Udala hiru bazkideren arteko hitzarmen posible bat negoziatzen ari da: sustatzaile pribatua, Beterri Kostako Industrialdea sozietate publikoa eta Udala bera. Hitzarmen horrek Irita eremuaren eremua gainditzeko, hainbat eremutan kokatutako partzela multzo baten hirigintza-garapena barne hartzeko. Hitzarmen honen bidez Udala Irita eremuaren jabe bihurtzea posible izango litzateke. Ez da zehazten lurzati horien erabilera.


Aurrekari horien arabera, nahiz eta Irita jarduera ekonomiko estrategikoak garatzera bideratutako hiri-lurzoru finkatugabetzat hartzen den eta egiturazko antolamendua eta xehekatua onartuta dituen, bere ingurumen-ezaugarriak eta uholdeak direla-eta, oso baldintzatuta dago, egungo hirigintza-antolamendua bideraezina bihurtu arte.

"25 Astierreka" eremuak 191.343 m²-ko azalera hartzen du. Plan orokorrak sektorekatu gabeko lurzoru urbanizagarri gisa sailkatzen eta hirigintza garapenerako eremu egokia dela aipatzen du, dentsitate handiko bizitegi-garapenerako lehentasunezko eremu gisa hartuz eta etxebizitza babestuaren sustapen publikoa eginez. Hala ere, ZHAPOk beste eremu batzuetarako proposatzen duen birkalifikazioari buruzko hirigintza-aurreikuspenak kontuan hartuta, hiri-lurzoru gisa sailkatuta dauden lurzoruen hirigintza-kudeaketak nola garatzen diren ikusi arte Astierrekako lurzoruak berehala garatzeko sektore espezifikoetan ez sartzea litzateke egokiena, momentu horretan lurzoru horiek sektorizatze beharra duten edo ez aztertu beharko baita.


Eremu honetako Hirigintza Araudi Partikularrek adierazi dute sektorizazioa ematen ez bada, eremu honetan lurzoru urbanizaezinerako aurreikusitako araudia aplikatuko dela, honako zehaztapen hauen arabera:

- Lehenetsunez aplikatuko da Hezeguneen LAParen araudia (160/2004 Dekretua, uztailaren 27koa), Planean bertan mugatutako eremuan.
- Hezeguneen LAPren antolamendutik kanpo geratzen diren eremuetan, Nekazaritza eta Abeltzaintza nahiz Landazabala kategoriak duen erabilera, eraikuntza eta lanetarako erregimena ezarriko da, hau da, baserri berrien eraikuntza edo dagoeneko eraikita dauden azalera handitzea eta ustiapen intentsiboko instalazioen eta ikuiluen eraikuntza debekatzen da.


Ondoren, ZHAPO-ren plano batzuen irudiak agertzen dira, aipatutako eremuen egoera urbanistikoa ilustratzeko helburuarekin.




25. irudia: ZHAPOko B-1 planoaren Hirigintza antolamendurako elementu erabakigarriak. Iturria: ZHAPO.




26. irudia: ZHAPOko B-2 planoa Lurzoruaren sailkapena. Iturria: ZHAPO.



27. irudia: B-6 planoa Hiri lurzoru eta urbanizagarriaren hirigintza antolamenduaren eremuak. Iturria: ZHAPO.



28. irudia: B-4-1 (Iparraldea) planoa Lurzoru urbanizaezinaren kalifikazioa eta antolamendua. Iturria: ZHAPO.



29. irudia: B-5-1 planoa. Sistema orojarren zuzkidura sarea (Hiri lurzoru eta urbanizagarrian). Iturria: ZHAPO.


2.2.8. Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoa 2015-2021

Urtarrilaren 8ko 1/2016 Errege Dekretuaren bitartez onartua izan da 2015-2021 zikloari dagokion Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoa eta bertan sartzen da Uholde Arriskua Kudeatzeko Plana.

EAEko uholde arriskuaren kartografiaren arabera, Irita eta Astierreka eremuak 10, 100 eta 500 urteko itzultze aldiko uholde-arriskuaren barnean geratzen dira eta, baita ere, lehentasunezko fluxu-gunearen eraginpean.

2007/60/EE Zuzentaraua ezartzeko bidean, uholde arriskuaren ebaluazio eta kudeaketari buruzkoa, Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoak Uholde arriskuaren atariko ebaluazioa (UAAE) egin du. Ebaluazio honek Uholde-arrisku potentzial garrantzitsuko guneak (UAPGG) zehaztu ditu ondoren eremu hauen arriskugarritasun- eta arriskuaren mapak egiteko. Horrela, UAPGG bakoitzarentzat uholde-arriskua kudeatzeko helburuak ezartzen dira eta administrazio eskudun bakoitzaren arabera, eremu hauetan egin beharreko jarduerak zehazten dira. Horrez gain, EAEko esparruan era orokorreko lehenespen-ariketa bat egiten da, honek Uholde-arriskuaren atariko ebaluazioan ibai eta transiziozko UAPGGak talde ezberdinetan sailkatzea ahalbidetzen du.

Azterlan den eremua Zarautz UAPGG (ES17-GIP-ORI-01) barnean aurkitzen da II. taldean sailkatua, hau da, talde honetan aurkitzen dira arrisku handiko UAPGGak eta hauen babes estrukturalari nahiko laster ekin behar zaio.



30. irudia: Uholde-arriskua aztergai den eremuan. Iturria: Geoeuskadi.



31. irudia: Zarautz UAPGG -aren (ES17-GIP-ORI-01) mugaketa . Iturria: Geoeuskadi.

2015-2021ko Plan hidrologikoaren 2015-2021 eta 2021-2027 aldietan bete beharreko neurrien programa berraztertu ondoren, Zarautz UAPGG-ko jarduerak programan agertzen ez direla egiaztatzen da.

Eremuan garatuko diren jarduerak Plan hidrologikoaren araudia bete beharko dute, jabari publiko hidraulikoko eta lur-itsas jabari publikoko babesari buruzkoa eta VII kapituluko uren kalitatean (lurzoruaren erabileren mugak adierazten dituen urak har dezakeen lekuan) ezartzen duena hain zuzen ere.

Nolanahi ere eremuan proposatzen den jarduera bakoitza egiteko administrazio hidraulikoaren baimena lortu beharko da.

Zarauzko udalerrian Olaa eta Iñurritza erreka-stoen uholdeetatik babesteko eta ingurumena berreskuratzeko proiektua²⁶


Hirigintza-antolamenduaren bilakaerari (ikusi 2.2.7. atala) paraleloki, Udalak hitzarmen bat sinatu zuen 2016an Ur Agentziarekin, eta honen bitartez aipaturiko entitateak Iñurritza erreka- ingurumen-hobekuntza proiektuaren barnean Iritako eremuan Iñurritza erreka-stoaren desbideratzen proiektua gauzatzeko konpromisoa hartu zuen. Gaur egun, proiektua hau jada idatzia dago eta URaren aldetik obrak esleitu dira eta epe laburrean hasiko dira.

Proiektu honek Irita eremuko hidraulika- eta ingurumen-hobekuntzarako lanak biltzen ditu, hau da, Iñurritza erreka-ko eskuineko ertzean dagoen ura bideratzeko pareta eraistea, 1 metroko altuera maximoa duen 2H:1B ezponda bat eginez eta gero ertzetako egiazko lurzorua mailara iritsi arte lur-erauzketa bitartez ezponda aldagarri bat egitea. Ezkerreko ertzean 1,5 metroko harri-lubeta egingo da eta kanpoaldetik material egokiarekin betelana, azkeneko 30 m-tan landare-lur geruza erabiliz. Geruza honen gainean 750 g/cm² dituen kokozko fibraz eginiko manta bat ezarriko da, hidroereite lanak egingo dira eta *Lonicera japonica* espeziea landatuko da (espezie hau aloktonoa izanik, horren ordez *Lonicera periclymenum* landatzea gomendatuko genuke). Horrela, jarduera hauek ezkerreko ertzaren naturalizazioa ahalbidetuko dute, nahiz eta erreka bideratzeko horma ezin den eraitsi. Gaur egun erreka-aren ubidea mugatzen duen 8,61 m eta 12,0 m bitarteko zabalera duen ibaia bideratzeko oinarria mantendu egiten da. Lehenengo 20 metrotan horma bat egin beharko da 1,5 metroko altuerako mentsulan zapata jarraia baten gainean harri-lubeta-oinaren eta errekan gora dagoen bideratzeko-hormaren transizioa egiteko.

Proiektuak Zarauzko udalak 17.2. Irita eremurako planteatzen duen urbanizazio proiektua, behin behineko onarpena duena, bere gain hartzen du, nahiz eta gaur egun ez duen Ur Agentziaren baimenik. Horrela, erreka bideratzeko horma eraistea pentsatzen da, Asti erreka ubidea batetik bideratzen den tartea eta honen pasagunea barne, eta hezegune zabal bat eratzen da kota baxuan. Hezegune hau bi ubidek zeharkatuko dute, aurreko ur ibilguekin lotura izango dutenak.

²⁶ LKS, ingenieria S.Coop. 2018. *Zarauzko udalerrian Olaa eta Iñurritza erreka-stoen uholdeetatik babesteko eta ingurumena berreskuratzeko Proiektua*. Ura – Ur Agentzia.

Itsasmandiko pasagunearekin eta Zubiaurre-Zaharreko lehenengo zubiarekin topaketak transiziozko harri-lubeta “bizidunen” bitartez salbatuko dira, 8 m eta 10 m inguruko luzera izango dutenak hurrenez hurren.



32. irudia: Iritako eremuan iñurritza errearen desbideratzerako sekzio motak. Iturria: Zarauzko udalerrian Olaa eta Iñurritza errekaetako uholdeetatik babesteko eta ingurumena berreskuratzeko Proiektua. Ura – Ur Agentzia.



33. irudia: Iritako eremuan iñurritza erreken desbideratzerako proiektuaren oin plano. Iturria: Zarauzko udalerrian Olaa eta Iñurritza errekaen uholdeetatik babesteko eta ingurumena berreskuratzeko Proiektua. Ura – Ur Agentzia.

3. ONDORIOAK

Ingurune fisikoaren azterketak argi utzi du Irita eta Astierrekako hezeguneek daukaten garrantzia, bere ezaugarrien balioetatik eta baita leheneratze ekologiko batek jardun-esparruari eta honen inguruko ekosistema osoari (gizakiak ere barnean ulertuta, noski) ekarriko lizkiokeen onurengatik ere. Indarrean dauden antolamendu-tresnen eta araudiaren azterketak, bestalde, esparruaren berezitasunak jasotzen dituela eta, udalaz-gaindikoei batez ere hauek babeste aldera jotzen dutela erakutsi du. Bada:

Irita eta Astierrekako eremuetako ezaugarri abiotikoei dagokienez, aipatzekoa da, alde batetik, Iñurritzaren estuarioaren parte den esparru honek, Zarauzko hirigunea sostengatzen duen akuiferoaren oreka mantentzen laguntzen duela. Akuiferoak berezko interes geologikoa daukala albora utzi gabe, hau ahitzeak edota gazitzeak aurreikusteko zailak diren ondorioak ekarriko lituzke hirigunearen zimenduetan; beraz, garrantzitsua da eremuko lurzorua artifizializazioa ekiditea, akuiferoarekiko daukan funtzioa bermatu dadin.

Bestetik, uholdeei aurre egiteko lehen ubideratzeak egiten baziren ere, hezeguneek ur-handiak moteltzeko daukaten ahalmena ikusirik, arrisku hau kudeatzeko orain joera hezeguneak birgaitu eta zabaltzekoa da, urpera daitezkeen ibarrak berreskuratu eta ura metatzeko eremuak berriz naturalizatuz. Honen gertuko adibideetako bat, Lasarten, uholde ugari nozitu

dituen industria-asentamendu batean, Oria ibaiaren ibai-hormaren naturalizazioa, haren babes-funtzioa galdu gabe, eta, aldi berean, ibaiertzeko landaretza berreskuratu eta ibai-parke berde bat sortuz²⁷ (34. irudia). Klima-aldaketa onorioetako bat muturreko prezipitazioek eta ibaiak gainezka egitearen ondoriozko uholdeen gorakada dela onartuta, Zarauzko udalerrian Irita eta Astierrekakoko eremuek zentzu honetan betetzen duten funtzioa bermatu eta sustatu beharko litzateke, EAEko klima-aldaketa 2050erako estrategiarekin²⁸ bat.



34. irudia: Lasarte-Oria ibai-habitataren berreskurapena hondamen naturalak prebenitzeko helburuarekin. Iturria: Ihobe, 2017.

Ezaugarri biotikoei dagokienez, aipatzekoa da kontserbazioaren aldetik interesekoak diren eta babestuta dauden habitat eta espezie ugari agertzen direla jardun-esparruan, honek Iñurritzako babesgune naturalarekin multzo ekologikoa osatzen duelarik. Biodibertsitate eta oreka-ekologiko hauek mantendu eta indartzea garrantzitsua da, balio natural hauen aberastasuna eta kontserbazio-egoera bermatu eta hobetzeko eta baita ekosistema osoaren erresilientzia, sendotzeko ere.

Erresilientzia ekologikoa edo ekosistemek asaldurei aurre egiteko ahalmenaren gaia, bereziki garrantzitsua da aldaketa globalaren agertoki honetan, zeinak hiritarren bizi-kalitatean eragin zuzena daukan. Esaterako, naturaguneek eta ekosistema urtarrak dauzkatenek batez ere, lurrunketa eta eapotranspirazioaren bitartez, hodei eta lainoen sorkuntza ahalbidetzen dute, ziklo-hidrologikoa erregulatu eta aldaketa klimatikoaren eskutik gero eta sarriago gertatuko diren bero-olatuak moteltzeko.


Bestalde, esparruko natur-balioak sustatzeak paisaiarengan eragin positiboa izango luke eta honen bitartez, hiritarren ongizatearengan, osasun psiko-emozionalaren aldetik. Noski, osasun fisikoan ere onura dakarte naturaguneek, airearen kalitatearengan eragiten baitute eta hiri-bilbetik hain gertu dauden kasuan, paseo eta kirola egiteko ibilbideetan integratuak izaten dira eta; Irita eta Astierrekako naturaguneen kasuan, Zarauzko eraztun berde-urdinaren parte bezala.

²⁷ Ihobe, 2017. *Irtenbide naturalak: EAEko praktika onen sorta*.

²⁸ Eusko Jaurlaritzak, 2015. *2050erako Klima-Aldaketaren Euskadiko estrategia*. KLIMA 2050 Basque Country.

Azkenik, ez dezagun ahaztu, naturagune babestuak baliabide turistikoa, eta beraz tokiko ekonomiaren bultzatzaile, ere badirela. Horren erakusle da Iñurritzako Biotopo Babestuak zentzu honetan Zarautzen izan duen eragin positiboa.

Argi dago, hemen adierazi ditugun alderdi guztiak elkarreraginean daudela, eta hala isladatzen da bai, Euskadiko Ingurumen Esparru Programan²⁹ (35. irudia) eta baita EAEko udalerrietan klima-aldaketa egokitzeko 'irtenbide naturalak' identifikatzeko eta mapatzeko iaz Ihobe argitaratutako gida metodologikoan³⁰ ere. Hurrengo orrietan agertzen diren tauletan ikusi ahal denez, irtenbide naturalen zerrendatik gehienek daukate edo izan dezakete lotura zuzenago edo zeharkagoagoren bat Irita eta Astierrekako eremuekin.



35. Irudia: EAEko Ingurumen Esparru Programa 2020. Iturria: www.euskadi.eus

Beraz, indarrean dagoen araudia eta antolamendu-tresnek zein ingurumenaren arloko estrategiek markatzen duten esparrua baliatuta, Irita eta Astierrekako eremuak babestea, egungo terminologian erabiltzen den “win-win” edo “denek irabazi” aukera bezala agertzen da nabarmenki.

²⁹ Eusko Jaurlaritza. 2014. *EAEko Ingurumen Esparru Programa 2020*.

³⁰ Ihobe. 2017. 'Irtenbide Naturalak' *Euskal Autonomi Erkidegoko toki-esparruan klima-aldaketa egokitzeko*. Klimategi 2016 proiektua.

12. taula: Irtenbide Natural bakoitzak EAEn identifikatutako klima-mehatxuen ondoriak murrizten laguntzen duen maila: 1-oso handia, 2-handia, 3-ertaina.

Legenda:

	Muturreko prezipitazioek eragindako uholdeak (euri-ura)
	Ibaiak gainetza egitearen ondoriozko uholdeak (ibai-ura)
	Itsas mailaren igoera
	Olatuak
	Lehortek
	Tenperaturaren gorakada
	Suteak

KLIMA-MEHATXUAK						
						
ERAIKINA						
Teilatu lau naturalak	1	1			3	2
Fatxada berdeak, lorategi bertikalak	2				3	2
Komunitatearen erabilerarako espazioak naturalizatzea	2				3	1
ESKU-HARTZEAK ESPAZIO PUBLIKOAN						
Kale-altzari berdeak	3					2
Zoladura iragazkorak	1	2	2		3	3
Plaza erosoak	1	3			3	1
Ur-mikroklimak						1
Hiri-baratzeak	1	2			2	1
Hiri-parkeak eta hiri-basoak	1	2	3		2	1
Orubeak eta aukera-espazioak bimaturalizatzea	1	2	3		2	1
ESKU-HARTZEAK UR-MASETAN ETA DRAINATZE-SISTEMETAN						
Hiri-drainatze-jasangarriko sistemak	1	1	1		2	
Urmaelak eta lakuak	1	2	3		1	2
Ibaiak eta errekek bimaturalizatzea	1	1	3		1	2
Uholde-lautadak	1	1	1			
ESKU-HARTZEAK GARRAIOETAKO AZPIEGITURA LINEALETAN						
Kaleak naturalizatzea	2	3			3	1
Azpiegitura lineal berdeak	2	3			3	1
ESKU HARTZEAK NATURAGUNEETAN ETA LANDA-LURZORUAREN KUDEAKETAN						
Naturagune babestuak	1	1		1	2	2
Hezeguneak	1	1			2	2
Hirien inguruko parkeak	1	2			2	2
Landa-lurzorua kudeaketa	1	2			1	2
ESKU-HARTZEAK KOSTALDEAN						
Kostaldeko lerroaren aurrerakadari aurre egiteko Irtenbide Naturalak		2	1	1		

13. taula: Irtenbide Natural bakoitzak EAEn dakartzan ingurumeneko zeharkako onurak.

Legenda:

	Ziklo hidrologikoa erregulatzea
	Uraren kalitatea hobetzea
	Lurzoruaren kalitatea, egonkortasuna eta higadura hobetzea
	Airearen kalitatea hobetzea
	Kalitate eta konfort akustikoa hobetzea
	Biodibertsitatea
	Karbono-biltegiratzea

INGURUMENEO ZEHARKAKO ONURAK								
ERAIKINA								
Teilatu lau naturalak		●					●	●
Fatxada berdeak, lorategi bertikalak		●		●		●	●	
Komunitatearen erabilerarako espazioak naturalizatzea		●		●		●	●	●
ESKU-HARTZEAK ESPAZIO PUBLIKOAN								
Kale-altzari berdeak				●		●	●	
Zoladura iragazkorak		●	●			●		
Plaza erosoak		●		●		●	●	
Ur-mikroklimak		●				●		
Hiri-baratzeak		●		●			●	●
Hiri-parkeak eta hiri-basoak		●	●		●	●	●	●
Orubeak eta aukera-espazioak bimaturalizatzea		●	●	●	●	●	●	
ESKU-HARTZEAK UR-MASETAN ETA DRAINATZE-SISTEMETAN								
Hiri-drainatze-jasangarriko sistemak		●	●	●				
Urmaelak eta lakuak		●	●	●			●	
Ibaiek eta errekek bimaturalizatzea		●	●	●			●	
Uholde-lautadak		●		●				
ESKU-HARTZEAK GARRAIOETAKO AZPIEGITURA LINEALETAN								
Kaleak naturalizatzea		●	●	●	●	●	●	●
Azpiegitura lineal berdeak		●	●	●	●	●	●	
ESKU HARTZEAK NATURAGUNEETAN ETA LANDA-LURZORUAREN KUDEAKETAN								
Naturagune babestuak		●	●	●	●	●	●	●
Hezeguneak		●	●	●			●	
Hirien inguruko parkeak		●	●	●	●	●	●	●
Landa-lurzoruaren kudeaketa		●	●	●			●	●
ESKU-HARTZEAK KOSTALDEAN								
Kostaldekoko erroaren aurrerakadari aurre egiteko Irtenbide Naturalak		●	●	●			●	

14. taula: *Irtenbide Natural bakoitzak EAEn dakartzan gizartearen zein ekonomiaren arloko zeharkako onurak.*

Legenda:

Gizartearen arlokoak	
	Osasuna eta bizi-kalitatea ¹⁹
	Aisialdia eta ingurumen-hezkuntza Elkartzeko espazioak balioestea
	Eremu degradatuak berroneratzea eta kriminaltasuna murrizteko ahalmena Hiri-espazioen konexioa hobetzea
Ekonomikoak	
	Energia-eskaria murriztea
	Tokiko enplegua
	Lurzorua eta jabetza balioa handitzea

ZEHARKAKO ONURA SOZIALAK - EKONOMIKOAK							
ERAIKINA							
Teilatu lau naturalak		•	•		•		•
Fatxada berdeak, lorategi bertikalak			•		•	•	•
Komunitatearen erabilerarako espazioak naturalizatzea		•	•				•
ESKU-HARTZEAK ESPAZIO PUBLIKOAN							
Kale-altzari berdeak			—	•			•
Zoladura iragazkorak					•		•
Plaza erosoak		•		•			•
Ur-mikroklimak		•	•	•			•
Hiri-baratzak		•	•	•		•	•
Hiri-parkeak eta hiri-basoak		•	•	•			•
Orubeak eta aukera-espazioak birnaturalizatzea		•	•	•		•	•
ESKU-HARTZEAK UR-MASETAN ETA DRAINATZE-SISTEMETAN							
Hiri-drainatze-jasangarriko sistemak		•		•	•		
Urmaelak eta lakuak			•	•			•
Ibaiak eta errekek birnaturalizatzea		•	•	•			•
Uholde-lautadak			•	•			•
ESKU-HARTZEAK GARRAIOETAKO AZPIEGITURA LINEALETAN							
Kaleak naturalizatzea		•	•	•			•
Azpiegitura lineal berdeak							•
ESKU HARTZEAK NATURAGUNEETAN ETA LANDA-LURZORUAREN KUDEAKETAN							
Naturagune babestuen		•	•	•		•	•
Hezeguneak			•	•			•
Hirien inguruko parkeak		•	•	•		•	•
Landa-lurzorua kudeaketa			•	•		•	•
ESKU-HARTZEAK KOSTALDEAN							
Kostaldeko leeroaren aurrerakadari aurre egiteko <i>Irtenbide Naturalak</i>			•	•		•	•

4. IRITA ETA ASTIERREKA HEZEGUNEAK BABESTEKO PROPOSAMENA

Irita eta Astierreka eremuen babesa bermatzeko proposamena ondorengo da:

- Zarauzko HAPO-ren aldaketa.
- Iñurritza KBEaren ES2120009 zabalkuntza: Irita eta Asti eremuak KBEaren barnean sartzea, Hegaztien zuzentzarauan biltzen diren espezieentzat habitat egokiak berreskuratzeko duen potentziala eta estuarioaren eremuari zabaltzeko eta jarraipena emateko aukera duela ikusirik.

4.1. Zarauzko HAPOren aldaketa

“17.2. Irita” esparruaren inguruko berrikuspen edo Plan Orokorren aldaketa puntual posible batean hiri-lurzoruen sailkapena mantentzea izango litzateke ideia. Esparruaren zonifikazioari dagokionean, ingurumen-balio handieneko eta uholde arriskua duten lurrak “Sistema orokorreko Espazio libre (SOEL)” moduan ezarriko dira eta hezegunearen zaharberritzera zuzenduko dira, errekaren desbideratzea balioa jarritz. Haurtzaindegia dagokion eremua “Sistema orokorreko zuzkidura sarea” bezala sailkatuko da eta gainerako eremu guztia “Bizitegi-erabilera” bezala (36. irudia).



36. irudia: ZHAPOko “17.2 Irita” eta “25. Astierreka” eremuen aldaketaren proposamena.

15. taula: Proposatutako zonifikazio kategoria bakoitzaren azalera.

Eremua	Sailkapena	Zonifikazioa/Kategoria	Azalera (m²)
17.2 Irita	Hiri-lurzorua	Sistema orokorreko Espazio libreak (SGEL)	37.332
		Sistema orokorreko zuzkidura sarea (RDSG)	1.089
		Bizitegi-erabilera (R)	17.699
25. Astierreka	Lurzoru urbanizagarria	Babes berezia (EP.5)	99.624
		Nekazaritza eta Abeltzaintza, eta Landazabala (AG)	80.829
		Lur gaineko uren babesa (AS)	21.616
Guztira			258.189

“25. Astierreka” eremuaren kasuan, ZHAPOean sektorizatu gabeko lurzoru urbanizagarria moduan sailkatua, lurzoru urbanizaezina bezala sailkatzea proposatzen da. Astierrekaren ibilgua “Lur gaineko uren babesaren kategorian (AS)” sartzen da, eremuko zonarik lauena “Babes bereziko (EP)” kategoriaren barnean proposatzen da eta muinoak dauden zona “Nekazaritza eta Abeltzaintza, eta Landazabala (AG)” kategorian sailkatzen da.

Astierrekako kamioien aparkalekua Babes bereziko kategoriaren barnean geratuko litzateke eta “Antolamenduarekin bat ez datorren” instalazio bezala deklaratu litzateke Babes bereziko zonako helburuen kontra joateagatik eta eremuko xedearekin bateraezintzat hartzeagatik.

Proposamen honek Lurzoru urbanizaezinaren Babes bereziko (EP) kategoria berriz definitzea eta kategoria honi buruzko araudia (9.6.01 artikulua) berrikustea ekarriko luke. Horrela, eremuan proposatutako erabilera-sustatuak, -onargarri eta -debekatuak, zonako baldintzen eta zonari eman nahi zaion babesaren arabera, aproposak izatea bermatuko da.

ZHAPO-ren araudi orokorraren arabera, balio ekologiko, paisajistiko, kultural eta naturalistiko handiko zonei, oro har, aplikatzen zaie kategoria hori. Horretarako hainbat kausa egon daiteke: ondo kontserbatutako bertako basoak, sistema geomorfologikoak, egoera oneko ibai-konplexuak, barrualdeko hezeguneak, landaredia bereziko eremuak edo beste ekosistema natural interesdunak agertzea

Zarauzko udalerrian naturaltasun gradu garrantzitsua mantentzen duten bertako landaretzako kokalekuak agertzen dira eta hauek osatzen dute udalerriko ondare natural nagusia. ZHAPOk Babes bereziko kategorian sartzen ditu ondorengo zonak:

- EP1. Iñurritza eremuko Biotopo Babestua.
- EP2. Pagoeta parke naturala.

- EP3. Balio naturaleko beste enklabe batzuk: Elkanoko hariztiak (mendebaldean), Santa Barbara mendiaren itsasaldeko ipar isurialdea, Nekazabalgo hariztiak, eta Santa Barbara mendiko hainbat artelatzen-unada biltzen ditu.
- EP 4. Babes Zorrotz Bereziko Areak: Euskal Autonomia Erkidegoko Itsasertza babestu eta antolatzen Lurraldearen Arloko Planean mugatzen diren kontserbaziorako balio handieneko areak dira.

Babes bereziko lau zona hauei “EP5 Astierreka hezegunea” gehituko litzaieke, hau da, Astierreka erreka inguruan Babes berezi moduan sailkatzeko proposatu den eremua.

Gainera, Euskadiko 2018ko maiatzaren 21eko ondare naturalaren kontserbazio legearen aurreproiektuaren proposamenak jasotzeko helburuarekin, EP1 zona “EP1. Iñurritza KBE ES2120009” izaterako pasako litzateke.

ZHAPO-k zona honetarako irizpide eta helburu orokorra esku-hartze antropikoa mugatzea da. Aurretik dagoen egoera mantentzera mugatuko da, eta, zona horretan aprobetxamendurik badago, aprobetxamendu hori modu iraunkorrean sustatuko da, erabilitako baliabidea berriztatzen dela eta ingurunearen balioak zaintzen direla ziurtatuz. Aniztasun paisajistikoa eustera eta gerta daitezkeen inpaktuak murriztera bideratuko diren jardunak egin beharko dira. Azken finean, ingurumena babesteko eta hobetzeko jarduerak sustatuko dira.

Kategoria honetan erabilera erregimena ondorengo izango da:

- Erabilera sustatuak: Ekosistemen ingurumena kontserbatzeko eta hobetzeko jarduerak soilik sustatuko dira; nolanahi ere, organismo publikoen kontrolpean egongo dira.
- Erabilera onargarriak: Erabilera publiko estentsiboa onargarritzat hartzen da, baina ingurumenaren balioak babestu eta kontserbatu beharko dira. Erabileraren handitasunak eta baldintzek alderdi hori bermatzen ez badute, neurri murriztaileak hartu beharko dira, hala nola espazio eta/edo denbora mailako mugak ezartzea, zona horiek arintzea, edo harrera-ahalmen handiagoa duten beste batzuetarantz bideratzea. Halaber, babeseko baso-erabilera (bertako espezieekin) onargarritzat hartzen da, orokorrean ekosistema hobetzen laguntzen baitu, erakunde publikoen bidez kontrolatua bada ere. Modu iraunkorrean garatzen den abeltzaintza ere onartzen da. Landa-bideak, airetiko lineak eta lurpeko lineak ere onartu egingo dira ezinbestekoak direnean, eta aurretik izan daitezkeen aukerak eta ingurumen-inpaktua aztertu ondoren.
- Erabilera debekatuak: Aurreko idatz-zatietan zehazten ez diren erabilera guztiak debekatutzat joko dira.

Eraikuntzaren erregimenari dagokionez, debekatuta daude mota orotako eraikuntzak eta instalazioak, behin-behinekoak barne. Aurretik dauden baserrietan birgaitze-lanak baimenduta daude, baita barrualdea birmoldatzeko edo finkatzeko obrak ere. Debekatuta dago azpiegitura berrien instalazioak edo obrak egitea. Debeku horren barruan azpiegitura txikiko obrak ere

sartzen dira, hala nola bidezidorrak, automobiletarako sarbideak eta aparkalekuak, eta ibai eta erreketako hartuneak.

Orokorrean, Babes bereziko eremuen inguruan ZHAPOk biltzen duen araudia egokia kontsideratzen da proposatutako zona berriko (EP5) helburuak bermatzeko. Hala eta guztiz ere, helburu nagusia hezegunearen berreskuratzea dela kontuan izanda, basogintza eta abeltzaintza erabilerak debekatzearen aukera aztertu liteke, babes bereziko beste zona batzuetan erabilera bateragarria izan daitekeen arren, printzipioz, estuarioaren habitata berreskuratzeke ez litzakete bateragarria izango.

Aldi baterako egoera begiets liteke, eremuan esku-hartze osoa egin arte, nekazaritza-erabilera orokorra (ZHAPOko C1), aisialdirako txabolak (C.1.1.1) eta negutegiak (C2) baimenduz eta nekazaritza-ustiapenekin lotzen diren bestelako eraikuntza eta instalazioak (C1.1.2, C1.1.3 y C1.1.4) debekatuz.

4.2. Iñurritza Kontserbazio Bereziko Eremuaren (ES2120009) handitzea

Habitat desberdinak berreskuratzeke eta Hegaztien zuzentarauan biltzen diren espezieentzat Irita eta Astierreka eremuen potentzialtasun altua kontuan izanik, eta hezegune bezala berreskuratzea nahi den zonaren babesa bermatzeko, Irita eremuan Sistema orokorreko Espazio libre moduan zonifikatutako eta Astierreka eremuan Babes berezi eta Lur gaineko uren babesa kategorietan sailkatutako zonak Iñurritzako KBEan (ES2120009) sartzea proposatzen da.

Gogoraraztekoa da (2.2.1. atala) bere garaian, Iñurritzako KBE izendapen prozesuari buruzko alegazio desberdinak aurkeztu zirela, KBE-aren mugaketa handitzea proposatzen zutenak ikerketa eremuak bertan sartzeko helburuarekin. Alegazio multzo hori ez zen burutu: *Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailak Europako Batzordeak 2004an BGL onartu zuen eremuen mugaketari jarraikiz KBE-en izendapena izapidetzea erabaki du. Beraz, lekuen mugaketari buruzko alegazioak BGL-en mugaketa zabaltzeko espedientearen esparruan aztertu eta erantzungo dira.*

Hots, Ingurune-organoak aurrez ikusten zuen Natura 2000 eremuen mugaketa ikuskatzeko eta handitzeko beharra, hura geroagoko izapideetara igorritz.

Horrela, erakunde-eskudunari Iñurritza KBEaren (ES2120009) handitze eta eguneratze proposamena Europako Batzordearen aurrean tramitatzea eskatuko zaio. Irita eta Astierreka eremuei dagokienean (mugaketaren berraztertze honek beste eremu batzuei ere eragin diezaiokeela ulertzen da) honako itxura izango luke:



38. irudia: Iñurritza KBEaren mugaketa berriaren proposamena, Irita eta Astierreka eremuak sartu ondoren.